

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

SOZIOLOGIA

2020-2021

GRADU AMAIERAKO LANA

**FRANKISMOAREN 60. HAMARKADAN
GERTATU ZIREN GENERO
ALDAKETAK, FILMEN ANALISIAREN
BIDEZ.**

IKASLEA : NAGORE URUEÑA YUGUEROS

TUTOREA: AINTZANE RINCÓN DIEZ

2021ko maiatzaren 25a

AURKIBIDEA:

LABURPENA.	2
HITZ GAKOAK: desarrollismo frankista, familia, migrazioa, genero rolak.	3
HELBURUAK eta HIPOTESIAK.	4
IKUSPUNTU EPISTEMOLOGIKOA.	5
METODOLOGIA.	8
1.- FRANKISMOA, EMAKUMEAK ETA MIGRAZIOA.	10
Emakumea eta lan mundua desarrollismoaren garaian.	11
Emakumea eta hezkuntza formala.	16
Emakumeak eta fenomeno migratzailea.	18
2.- FRANKISMOA, EMAKUMEA ETA EMIGRAZIOA PELIKULETAN ETA ELKARRIZKETEAN.	23
Emakumeen izateko era “egokia” etxean.	23
Emakumeak eta hezkuntza.	28
Emakumea lan munduan.	30
Barne migrazioa.	32
Kanpo migrazioa.	35
ONDORIOAK.	38
BIBLIOGRAFIA.	42
ERANSKINAK	48
HERRIKO, 1. PROFILAREN ELKARRIZKETA. (AGURTZANE)	48
HERRIKO, 2. PROFILAREN ELKARRIZKETA. (ANTONIA)	53
HIRIKO, 3. PROFILAREN ELKARRIZKETA. (MIREN)	56
HIRIKO, 4. PROFILAREN ELKARRIZKETA (MARÍA)	58

LABURPENA.

Proiektu hau, Frankismo garaian kokatzen da, 1960 eta 1973 urte artean. Zehazki, adierazitako urte hauetan, eta elizaren sostenguaren bitartez, inplementatu/martxan jarri ziren politika edota legeen bidez eragin ziren gizarte aldaketetan. Gainera, urte hauetan, jendartean, jarduteko modu “egokiak” eta “ez egokiak” kontrolatzeko modu informalekoak ere nagusituz joan ziren.

Testuinguru horretan inposatu ziren gizarte ereduaren artean, erdigunean egongo den erakundea, familia izango da, izan ere, erregimenaren helburu nagusia, familia patriarkal tradizionalera bueltatzea izango da. Pilar Pacualek, 2018. urtean, honela definitu egiten zuen familia eredu hau: *“Familia patriarkal tradizionala bere kideen genero-rolen banaketa markatuak definitzen du, non aitaren beharrak lehenesten diren eta amarenak ezkututzen diren, horiek ez ezagutzeraino”*.

Familia eredu patriarkal tradizionalera bueltatzeko erregimenak egindako eginkizun baten adibidea, 1938ko martxoaren 2an Dibortzioa eta banantzearen legearen indargabetzearekin¹ izan zen, honetan nabariaren geratzen baita aipatutako familia eredu horretara bueltatzeko ahalegina.

Lan honetan desarrollismoa bezala ezagutzen den garaian zentratuko naiz, generoaren eta familiaren gaineko aldaketa nabari eta esanguratsuak ikusten hasi zireneko garaia edo aldia izan zelako, eta tradizioa modernitatearekin uztartzeko behar instituzionala (frankismoarena) garatu zelako, berau, nola kudeatu zen eta nola martxan jarri zen ikustea interesatzen zait.

Desarrollismoaren urte horiek, besteak beste, migrazioak markatu egin zituen. Izan ere, prozesu migratzaileak, barnekoak zein kanpokoak, familiaren gainean, hauen eguneroko bizitzan, hauen pentsamenduetan... aldaketa garrantzitsuak eragin zituen fenomeno bat izan zen.

Populazioaren mugimenduak aspalditik eman ziren arren, desarrollismoaren

¹ Indarrak gabe geratzen dira 1932ko martxoaren 2ko dibortzioari buruzko Legea eta lege horren xedapen osagarriak, eta indarrean geratzen dira, arlo horretan, Kode Zibilarren xedapenak. Estatuko Boletín Ofiziala, 1939ko urriaren 5a, zk. 278, or. 5574- 5578.

testuinguruan, berak, ezaugarri berezkoak ditu, frankismoaren biraketa diskurtsiboarekin harremana duena, eta familiaren egitura eta esanahiari ere eragiten dizkionak. Honi gehituz, nekazal eremuetako gabeziak, eta alderantziz, hiriek eskaintzen zituzten ekonomia maila eta bizi baldintza hobeak. Era honetan, aldagai guztien baturaren ondorioz, hiria, bizio eta inmoralitate guztien topaleku izatetik, hiritarrei aukera material berriak (eta zilegizkoak) eskaintzen zituen espazioa izatera pasatuko da, jendarte handiak bultzatuz, aldaketa sakona suposatzen zuen ibilbidea ematera.

Orain arte aipatutako aldaketek, familiaren erakundean eta bereziki feminitatean izan zuten eragina aztertuko dut lan honetan. Eta ikusteko, aipatutako aldaketek nolako eragina izan zuten familiaren eta emakumearen gainean, hainbat liburu, albiste, lege... desberdin erabiliko ditut. Eta, bibliografia espezializatuaren bidez, Frankismo garaian sortutako zenbait pelikula aztertuko ditut, lagunduko didatenak, garaian bertan, familiaren ideiarengatik inguruan zegoen esanahien aldaketak, eta idatziz hautematen ez diren familiaren eta emakumearen gaineko portaerak aztertuko.

Azterketa honen ardatzean genero ikuspegia izango dut. Bederen, lau emakumeen testigantzak ere erabiliko eta landuko ditut. Emakume hauen testigantzen bidez, garaiko feminitatearen esperientziaren eta aldaketen inguruko oroimenetara gerturatzeko asmoarekin.

HITZ GAKOAK: desarrollismo frankista, familia, migrazioa, genero rola.

HELBURUAK eta HIPOTESIAK.

Ikerketa honen helburua, Espainiako penintsularen osotasunean, 60. hamarkadatik 70. hamarkadararte, familiaren eremuan eman ziren aldaketak aztertzea izango da. Zehazki, haren baitan emakumeen zereginak bezala kontsideratzen zirenak edo haren rolak aztertu nahi ditut. Azterketa hau egiteko borondatea zera da, ikustea, 60ko hamarkadaren igaroaldian feminitatearen inguruko ikuspuntua aldatu egin ote zen, eta, bestalde, ikusteko emakumea beren zereginetatik aldendu ote zen esperientziarik egon zen.

Ikerkuntzaren hipotesiei dagokienez, bi ideia nagusi proposatzen ditut. Hasteko, familiaren baitan generoaren inguruan egon ziren aldaketak, eta konketuago emakumearen paperaren gaineko aldaketen inpaktua, bakarrik etxe barneko ingurunean nabarmendu egin zirela pentsatzen dut, bederen, gizartearen osotasunean aldaketak sumatu barik, egunerokoa berdin jarraituz. Bestalde, migrazioaren esperientziak emakumeei askatasun sentimendu txiki bat pizten lagundu zutela aurreikusten dut.

IKUSPUNTU EPISTEMOLOGIKOA.

Proposatutako gaia kontuan hartuta, desarrollismoa eta emakumearen rolen inguruan gertatutako aldaketak generoaren historian, izango da ikerketa honen ardatz teorikoa. Honen bitartez, emakumea ez da objektu soil bat bezala ikertuko, ikerketaren parte izango delako. Era honetan, profil femeninoaren, hautemanak, gertakizunak, bizipenak, ikusteko moduak... kontuan hartuz. Emakumea azterketan sartuz, eta hauen habiatik aztergaia aztertuz. Bederen, ikerketa, puntu subjektibo batetik abiatuta.

Historian zehar, feminismoaren ekarpenak ez dira handiak izan, hala ere, gehituz joan dira, eta horrela ikusi daiteke, feminismoak epistemologiari egindako ekarpenetan XX. mendearen azken laurdenekoan. Honekin, ezagutzaren teoria berri baten bidea sortuz, eredu klasikotik aldendua, eta feminismoaren ekarpen berriak izango dituen, *“bada garaia gizonen historia ikuspegi feministetatik aztertzeko, kontuan hartuta koordinatu androzentrikoetatik egin denean kontakizun neutro eta unibertsal gisa erakutsi nahi izan dela”*(Lorenzo Arribas, Josei, 2004:78). Aukera emanaz, emakumearen partaidetza handitzeko, eta ikerketetan objektu soil izatetik, ikertzailea eta partaidea ere izatera igarotzeko.

Emakumearen ekarpenak ezagutzaren teorian hasi baino lehenago, historiaren kontakizunak, urteak atzera, gizonak bakarrik egin dituzte, bederen, emakumeak eta hauen ikuspegia baztertuz, soilik gizonen ikuspuntua kontuan hartuz. Eta, emakumeak erakundeetan, masetan, irudimenetan... parte hartu bazuten ere, bertan disolbatuta zeuden, presentzia esanguratsurik gabe.

Alegia, historian aldaketak egon dira, eta emakumeak, ez dira beti ezkutuan egon, adibidez, positibismo-instituzionalismo garaian, emakume batzuk historientzako arreta profilak izan ziren. Aukera eman zuena, genero femenino baten profila ere historian sartzeko, gizonena soilik izan barik.

Era honetan, eta XX. mendearen azkeneko urteetaraino, emakumearen irudia oso nabaria ez zen arren, historiako pasarteetan, filosofian, edo ikasketetan, XX. mendearen azkeneko urteen bitartean, gutxika, gradu desberdinetan inskribatzen hasi ziren, honen bidez, emakumeen presentzia nagusitzen zelarik unibertsitatean. Eta 70eko hamarkadan,

goi-mailako hezkuntzaren esparruetara irizten hasi zirenean². Hori dela eta, emakume profesionalen, irakasleen eta ikertzaileen kopuruak gora egin zuen, eta horrekin batera, munduko errealitate askoren ikuspegi desberdina eta aldizkakoa³.

Genero honen presentzia gero eta handiagoa zenez goi-mailako hezkuntzan, feminismoaren txertatzeak eragin zituen epistemologian. Era honetan, epistemologia feministan generoaren kontzeptua erabiltzen hasi zen, desberdintasun biologikoen arteko eta emakume/gizonen gizarte rolen bereizketa egiteko. Gainera honek, aukera eman zion epistemologiari, tesi biologikoetatik aldentzeko, eta emakumeari, esleitzen zitzaizkien rol sozialetatik urruntzeko, emakume batzuk etxeko-andre izatetik ikertzaileak izatera pasa zirelako. Generoa, beraz, oinarrizko kategoria bat da emakumeen aurkako bereizkeria ulertzeko, izan ere, genero-ikuspegia erantzun juridikoaren funtsezko tresnatik aldentzen zen, gizon, zuri, heterosexualen profiletik aldentzen zelako.

Feminismoak indarra hartuz joan zen urteak aurrera egin ahala. Hala ere, feminismoaren barneko jarrerak heterogeneoak izango dira, hots, eta bide desberdinak izan arren, bi puntutan adostasuna dago. Lehenengoa, gizarte-bizitza antolatze funtsezko kategoriak dira, generoa, arraza, etnia, klasea eta adina. Eta aipatutako guztien arteko elkarrekintzak. Eta bigarrena, gizarte-bizitzak nola funtzionatzen duen eta nola antolatuta dagoen ulertzea ez dela nahikoa, gizarte-mundu hori zuzena egiteko ekintza ere beharrezkoa da, eta beraz, feminismoa, aldaketa sozial jakin baterako, konpromiso nagusietako bat da.

Feminismoaren aurkikuntza epistemologiko indartsuenak “ezagutzaren” eta “boterearen” arteko loturan oinarritzen dira. Nolanahi ere, ezagutzarako sarbideak boterea handitzea dakarrela ez da soilik esan nahi duena, baizik eta, ezagutza-asmoen legitimazioa menderatze- eta baztertzeko sareekin estuki lotuta dagoela. Izan ere, teoria klasikoan, profil nagusia: gizon, zuria, klase sozial ertainekoa edo altukoa, eta heterossexuala zen. Eta hau zen, neutraltasunaren eta objektibotasunaren adierazle.

² Genero-ideologiak bie eragiten die, baina eragin desberdina du, gizonengan beren esperientziak gizatasuna ("gizona" zentzu unibertsalean) adierazten dutelako ustea sortuz, eta emakumeenak, berriz, beren buruentzat ere, "Desberdintasuna" agertzen da, besteak bezala edo askotarikoa.

³ Epistemologia eta metodologia hori komunikabide akademiko guztietan zabaldu da pixkanaka, orientazio feministari, haren aldarrikapenei eta irrikeri buruzko ikerketak, biltzarrek eta kongresu espezifikoko argitaratuz; are gehiago, aldizkari espezializatuak sortu dira, hala nola Feminist Studies, Feminist Review, Gender and Society, eta abar, Mugimendu Feminista osoa hedatzeko bitarteko gisa.

Hala ere, pentsamendu hau ez zen bakarra, izan ere, idazle batek alarazten du, ikertzaile izaten zen profil mota⁴ hau eta objektibotasuna ez zirela parekoak, *“klase pribilegiatuko gizonak eragin sakona izan du objektibotasunaren praktika eta ulermen zientifikoa garatzeko moduan”* (Blazquez Graf, Norma, 2010).

Alegia, eta idazle guztiak ados ez egon arren, profil dominantea zen indartsuena, era honetan, egiten ziren ikerketetatik, profil dominatzailea ez zen bestelako arraza, klase sozial, generoko... pertsonak ikertzaileak izateko aukeratik gabe utziz, ikuspuntu soil bat erabiliz ikerketetarako.

Zientziaren hizkuntzaren azterketa da epistemologia feministaren estrategietako bat, ikertzailearen itxurazko neutraltasuna desegiteko eta interesak teoria zientifikoen eraikuntzan nola iragazten diren jakiteko. Izan ere, epistemologia feministak ikustarazi nahi du, zientziaren hizkuntza ez dela neutrala. Bertan balioak iragazten direla eta ez da deskribapen hutsa, ez baita literala. Ezagutza, subjektuaren eta objektuaren arteko elkarreraginaren emaitza bezala kontsideratzen da, ez objektu baten gaineko azterketa objektiboa. Era honetan, harremanaren terminoetako bat aldatzen bada, elkarrekintzaren emaitza ere aldatzen da.

Nire interesa ez denez neutraltasuna bilatzea ikerketa honen ibilbidean, emakumeen garaiko bizipenetan miatu nahi dudalako, jakiteko hauek, 60. hamarkadaren bitartean gertatu ziren aldaketa guztien erruz sufritu ote zuten jakiteko, eta aldaketak nolako eragina izan zuten hauen egunerokoan, besteekiko harremanetan eta pentsatzeko moduan. Epistemologia feminista erabiliko dut, ezagutzaren teoria berri honen bitartez, aukera emanez, puntu subjektibo batetik beraien bizipenak azaleratzeko, desarrollismoaren garaian, hauek izan baitziren, aldaketa gehienek biktimak.

Ondorioz, epistemologia feminista erabiltzea izango da aukerarik onena, interesa emakumeen gaineko aldaketak, eta aldaketa hauen gainean zer nolako sentimenduak, ikusmoldeak izan zituzten aztertzea delako, berez, emakumea aztergai izanda, ez emakumearen irudi soilak.

⁴ Gizon, zuria, klase sozial ertainekoa edo altukoa, eta heterosexuala.

METODOLOGIA.

Proiektu hau aurrera eramateko, alde batetik, aztergai dudan testuinguruaren ezagutza historiografikoan murgilduko naiz, erregimenak, desarrollismoan zehar izandako arazo ekonomikoak zein kulturalak zeintzuk izan ziren, eta hauek zer nolako aldaketak eragin zituzten ikusteko. Eta ondoren, aurretik aukeratutako denbora eremu eta faktore desberdinen arabera film jakin batzuen analisia egingo dut. Analisi horiek egiterakoan irakurritako bibliografia guztia erabiliko dut, izan ere, pelikulen analisi historikoa egin nahi dut.

Erabiliko dudan beste iturri bat, elkarrizketak izango dira: emakume ezberdinak elkarrizketatu, hitzak transkribatu eta berauek aztertu eta analizatuko ditut. Era honetan, bibliografiaren, ikus-entzunezko materialaren eta elkarrizketen bidez garaian gertatutako bizipen eta gertatutako ekintzak zeintzuk ziren jakiteko iturri desberdinen bitartez.

Nire interesa, familia arloan eta genero rolen ingurukoak jakitea denez, metodologia kualitatiboa erabiliko dut, metodologia honen bitartez, alderdi sinbolikoak aztertuko ditudalako, hau da, bizipen, esperientziak, ikusmolde desberdinak, numerikoak ez diren emaitzak ere lortuz, subjektibotasunez biziak.

Aukeratutako metodologiaren barnean erabiliko ditudan teknikak, bi izango dira: alde batetik, pelikulen analisia. Hauek, metodo etnografikoaren bidez analizatuak izango dira, ikerketa-metodo hau, gizarte-taldearen praktika kulturalak behatzean eta horietan parte hartu ahal izatean datza, horrela, jendeak esaten duena eta egiten duena kontrastatu ahal izateko. Eta bestetik elkarrizketak, ez egituratuak edo irekiak. Dena dela, gidoi planteatu baten bidez egingo dira, elkarrizketaren ariaren ez galtzeko eta interesatzen diren gaietatik ez ateratzeko.

Hau eginda, elkarrizketatik ateratzen diren emaitzen analisia egingo dut, zeinetan emakumeen intimitatea eta anonimotasuna zainduko ditut. Horregatik ez dut beren datu pertsonalik emango, izengoitiak erabiliz izenen ordean (Profil 1: Agurtzane; Profil 2: Antonia; Profil 3: Miren; Profil 4: Maria). Hala ere, gaur egun bizi dugun egoerak, elkarrizketen inguruko birmoldaketa egitera eramaten nau halaberharrez. COVID-19-ak pertsonen

harremanetan eta kontaktuan izan du inpaktu gehien, beraz elkarrizketa gehienak ezin izan ditut aurre-aurrez egin, kutsatzeak saihesteko.

Elkarrizketak egiteko, adineko emakumeak bilatu ditut. Aztertuko dudana analisi aldia bizi izan zuten emakumeak. Garai hauek bizi izan zituzten pertsonak, testigantza aberatsagoak dituztelako, garaiko egoera ezagutzen duten intelektualek baino. Aukeratutako profilek lehenengo pertsonan kontaktzen baitute bizitakoa eta garaian gizartetik ikusten zutena, eta intelektualek, ikerketen, eta besteen testigantzen bidez bereganatzen dutena kontaktzen dute eta.

Hala ere, kontrako aldea ere badauka adinekoen testigantzak aukeratzea, birusak kalte gehiago sortzen dituelako adinezko pertsonetan, gehituz, aukeratutako adin tartean dauden pertsona gehienak erresidentzietan bizi direla, zaildu egiten duena aurre-aurreko kontaktua. Hortaz, eta arazoari irtenbide bat emateko, aurrez-aurreko elkarrizketak korreo elektronikoaren bitartez egingo dira, era honetan inor ez arriskuan jartzeko.

1.- FRANKISMOA, EMAKUMEAK ETA MIGRAZIOA.

Frankismoa, Gerra Zibilaren ondorengo urteetan, izaera pertsonal eta ideologia ultra-nazionalista baztertua izan zen, bere helburuen artean, Espainiako lurralde batasuna finkatzea zuena. Erregimena, ezkerreko ideologiaren aurka tinko jarri zen, komunismoak, Espainiarantz eta Europa mendebalderantz aurrera egin ez zezan. Gainera, Frankismoan, katolizismoak garrantzi handia izan zuen, estatuko erlijio ofizial bakarra bihurtuz.⁵ Izan ere, aurreko urteetan, katolizismoaren sektore batzuk bat egin zuten sektore erreazionarioekin, II Errepublikaren aurka. Era honetan, Katolizismo erreazionarioa frankismoaren parte izanik.

Katolizismoaren hurbiltasuna erregimenera, indar handia izango du familiaren eta emakumearen gaineko lege, finkatutako eguneroko egoera, eta abarretan. Familiaren eta emakumearen izateko modu “egokiak” erregimenaren begi-bistan, eta erlijioaren pentsatzeko moduan oso lotuta daudelako, gehiengoak goian aipatutako familia patriarkal tradizionaleroketara finkatuak.

Diktadura frankistak 1936. urtetik 1975. urtera arte iraun zuen. Historiaren tarte honetan, aldatetako eman ziren eremu ezberdinetan: gizartean, politikan, ekonomian, kulturean, egunerokotasunean, jendartearen ohituretan eta abarretan. Izan ere, diktaduraren heterogeneotasun hau aztertzerako orduan, historialariek lau etapa ezberdin izan dituzte: gerraostea (1939-1947/53), hamarkada bisagra (1947/53-1959), desarrollismoa (1960-1973) eta tardofrankismoa (1973-1975).

Desarrollismoaren aldia izango da, lehenago adierazi dudana bezala, azterketa lan honen etapa protagonista. Aldi honetan zehar, familia eta emakumeen egoerari dagokionean eman ziren aldatetako bereziki interesatzen zaizkit eta.

60. hamarkadan eman ziren aldatetako, bereziki ekonomikoak eta diskurtsiboak, aurreko hamarkada bukaeran martxan jarritako politika batzuek ahalbidetu zituzten. Konkretuki, azpimarratu beharra dago, 1957. urtean gobernu barruan eman ziren aldatetako. Urte horretan, Espainiako ekonomia liberalizatu eta modernizatzeko borondatea eta helburua

⁵ Elementu erlijiosoa funtsezkoa izan zen diktaduran, bai barrura begira, bai kanpora begira, lege ezarritako ordenaren asaldatzaileen irudia garbitzeko. Horrela, Elizaren laguntzari esker, kolpe militarri gurutzada erlijiosoaren zentzua eman zitzaion, gerra amaitu eta erregimen frankista behin betiko inposatu ondoren mendebaldeko erreserba espiritualetan aldaturako zena. Núñez de Prado, Sara (2014). “El papel de la Iglesia en la configuración del franquismo”. La Albolafia: Revista de Humanidades y Cultura, (1), 97-114.

zuten gizonak sartu ziren. Besteak beste, Opus Dei erakunde erlijiosoko kideak gailendu ziren gobernu berrian, eta hauek izan ziren ekonomiaren ardura hartu zuten “teknokratak”. Hauen artean zeuden, Juan Sardá edo Mario Navarro Rubio.

Gainera, Espainia, Nazioarteko erakunde ezberdinetan⁶ onartua izatea lortu zuen, gobernu berriak martxan jarri zuen Egonkortze plana zela medio. Honek, Espainiako ekonomia “normalizatzea” eta liberalizatzea zuen helburu, eta José Vidal Beneytoren arabera, *“gerra zibilaren amaieratik politika ekonomiko guztiz autarkiko”tik aldentzeko borondatea zuen politika izan zen*”.

Are gehiago, Fuentes Quintanaren arabera, Egonkortze planak eragin zituen aldaketa guztiak *“hurrengo hamarkadan gertatu zena ezin de ulertu.”*⁷ Izan ere, plan honi esker, ekonomian aldaketak eman ziren, islada izan zutenak gizartearen egunerokoan, modernitatearen hurbiltasunean, legetan... ondorioz, familia eta emakumearen gainean. Besteak beste, familiak markatuak zituen roletan, emakumearen harremanean lan munduarekin edota emakumearen harremanean hezkuntzarekin. Gainera, garaiko fenomenoak, migrazioak, ere aldaketak sortu zituen familiaren eta emakumearen gaineko egunerokotasunean.

Hala ere, aldaketak ez ziren bakarrik emakumearen inguruan gertatu, maskulinitatearen arloan ere egon zirelako. Ikuspuntu Frankista batetik ikusita, emakumearen papera, kokatzen garen garaietan, haustura soziala bezala ikusten zen, feminitatearen garaia bezala ikusten baizen.

1.1. Emakumea eta lan mundua desarrollismoaren garaian.

Espainiako lurraldearen barnean, ekonomiari begira ere, aldaketak egon ziren. Espainiako desarrollismoaren eta egonkortze-politika berrien obsesioa industriaren sektorea izan zen.⁸ Era honetan, Egonkortze planari lotutako Espainiaren nazioarteko mugen irekiera

⁶ 1958ko irailean, Espainia ofizialki onartua izan zen NMFn eta Munduko Bankuan. Cavalieri, Elena (2014). España y el FMI: La integración de la economía española en el sistema monetario internacional, 1943-1959. *Estudios de historia económica/Banco de España*, 65, or. 7.

⁷ Fuentes Quintana, E. (2004): Los economistas españoles ante los problemas de la economía española. *Papeles de Economía española*, (100), 373-404.

⁸ *La España del siglo XX* (2007) liburuan azaltzen denaren arabera, 1960an industria-ekoizpenak izan zuen hazkunde erreala, eta urteko batez besteko hazkunde-datuak % 10ekoak izan ziren; herrialdeko BPGa, berriz, motelago hazi zen (urteko % 6,2).

ezinbesteko baldintza bat izan zen inportazioak hasteko eta hauen pixkanakako handitzeak eragiteko. Ondorioz, industria-sektorea ekipamendu-ondasun aurreratuez hornitu ahal izan zen. Gainera, mugen irekiera produktibitatean ere gorakada eragin zuen, esportazioetarako erraztasunek Espainiako industriaren merkatuak handitu zituztelako, eta honek, eraginkortasuna hobetzera behartu zuten, bermeekin lehiatu ahal izateko, honen bitartez, per capita errenta izugarri handitu zen.

Estatuaren hazkunde ekonomikoak, biztanleriaren ekonomian eragina izan zuela jakina da, eta honekin batera, gizartean eta politikan ematen ari ziren aldaketak, horizonte berri bat ireki zioten emakumeei. Izan ere, uztailaren 22ko 56/61 legeak, ordura arte emakumeei lan mundura gerturatzeko inposatu zitzaizkien oztopoak malgutu zituen, hau, emakumeen eskubide politiko, profesional eta laboralei buruzkoa izan zen. Lege horretan,⁹ emakumeak behar bezala gaituta dagoen lanbide eta zeregin publiko eta pribatuetan lan egiteko duen eskubidea aldarrikatzen da. Halaber, ezingo du Justizia Administrazioan epaile, magistratu edo fiskal gisa parte hartu, adingabeen eta lan-kontratudunen tutoretza-jurisdikzioetan izan ezik.

Beraz, lanpostu guztietara heltzeko ezintasunarekin topo egin zuten emakumeek, emakumea izateagatik mugak zituztelako. Botere lanpostuak gizonenak bakarrik jarraitzen zutelako izaten, hots, erregimenak generoen aldaera mantendu nahi zuen emakumeari jarritako mugak pixka bat zabaldu arren, generoen hierarkia mantendu egiten nahian, maila txikiagoan zen arren.

Hala eta guztiz ere, bi generoen arteko desberdintasun nabarmena, frankismoaren industria-politikan ikusten da, izan ere, industrian: *“gizonak sektore kapitalizatuenetan kontzentratzen ziren, teknologikoak, plantila handiak eta sektoreko soldata handiak dituztenak, bestalde, emakumeak sektore intentsiboetan aritzen ziren, eskulanean, kapitalizazio baxuan eta produktibitatean, enpresa txiki eta ertainetan, eta, kasu askotan, ezkutuko enplegua zuten”*. (Sarasua, Carmen eta Molinero, Carme , 2008:14).

Halaber, generoen arteko desberdintasuna lan munduan era zuzenean azpimarratu egiten da, legearen hurrengo artikuluetan. Izan ere, emakumeei lan jakin batzuk egiteko aukera galarazten zaie, "Lan horiek nekagarriak, arriskutsuak edo osasungaitzak direlako". Era

⁹EBO, 175. zk., 1961eko uztailaren 24an ateratako dokumentuaren arabera.

honetan, emakumea, pertsona ahularen profila izaten jarraitzen du eta gizona profil indartsuarena, generoen arteko desberdintasunak pilpilean jarraituz.

Generoen arteko desberdintasunak nabarietak ziren arren, legearen sail batean desberdintasunak leundu egiten dira, konkretuki soldataren inguruan hitz egiten denean. Izan ere, segregazioa leuntzeko legearen urratsik garrantzitsuena soldata-diskriminazioa debekatzea izan zen, honek, lan beragatik soldata bera kobratu behar zela onartzen zuen.

Urrats hau, genero desberdintasunik gabeko lan munduan kokatzeko ideala izango litzateke, baina desberdintasunak egoten jarraitzen zuten estatuan, zeren, emakumea ez zen gizonaren pareko lanpostuetan egoten, kategoria baxuagoetan lan egiten zuen, era honetan, soldata baxuagoak irabaziz. Hau horrela, ezin zituzten soldata berberak irabazi, beste behin ere, generoen arteko desberdintasunak nabarian geratzen direlarik Espainiako estatuan, eta ez soldaten erregulazioagatik, baizik eta hauek irabazteko jarduten ziren lanpostuen bidez, generoen arabera kontratatzen zelako.

Generoen arteko aldaerak, edo genero bat bestearen jabea izatea, lege berriarekin ezabatzeko prozesua egin zen. Alegia, legeak planteatutako emakumearen gaineko eskubideak egikaritzeko, emazteak senarrari baimena eskatu behar zion. Baina hau ez da baliozkoa izango, "eskubide-abusua" badago, eta lehen auzialdiko epailearengana jo ahal izango da, emakumeak hala eskatuta eta ezkontideak bertan direla. Era honetan, gizonaren jabetza emakumeen gainean leundu egiteko pausoak eman ziren, senarraren gaindiko emaztearen independentzia guztia izan ez arren.

Nolanahi ere, habian jarritako 1961. urteko legea, emakumea askatuko zuela eta gizonak zituen baldintza berdinekin lan-munduan txertatuko zuela uste zen. Azkenean, aurrerapauso ukazina izan bazen ere, ez zituen aurreikuspen guztiak bete, eta kritika asko jaso zituen. M^a del Rosario Ruizen¹⁰ adituaren arabera *“emakumeak, batez ere prestakuntza kualifikatuarekin, esparru publikotik kanpo zeuden, nahiz eta kargu publikoak betetzeko gaitasun frogatua izan, eta hori justifikatzen zuen oinarri zientifikorik gabe”*. Autoreak genero femeninoak sufritzen zuten diskriminazioa aipatu egiten duelarik.

¹⁰ Espainia, Estatu Burutza. (1961). 56/1961 Legea, uztailaren 22koa, emakumeen eskubide politiko profesionaleri eta lan-eskubideei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1961-07-24, 175, 11004-11005. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1961-14132>

Bestalde, Pilar Primo de Rivera, Sección Femenina erakundearen lehendakaria eta lege-proiektua egiteko arduraduna, legearen babesean argudiatu zuen, legea emakume langileentzat zegoela egina, baina ez zituela gizartearen baloreak alboratzen, ez zelako lege feminista bat. Horregatik, 1961eko legea onartu egiten zuen, emakumea lan mundura zabaltzeko aukera zuela, baina beti ere, generoaren rolak errespetatuz. Era honetan, postu gorenak gizonenak zirelarik eta emakumeak lanpostu baxuetan kokatzen zirelarik, bi generoen arteko ahuleziak eta indarguneak nabarmenduz eta erregimenak nahi zuen hierarkia mantenduz.

Legearen bitartez eragindako aldaketak, ez ziren horrela geratu, eta 1966. urtean emakumeari esleitzen zitzaizkion mugak lanpostuetara begira, aldaketa batzuk jasan zituzten, izan ere, emakumeari magistratu, epaile eta Justizia Administrazioako fiskal gisa jarduteko baimena eman zitzaion¹¹.

Gainera, emakumearen papera lan munduan bestelako aurrerapauso bat eman zuen, alegia, enpresa garrantzitsu askoren barne-araudiak aldatuz joan ziren¹², bideratu zuena, emakumeak lanpostu- eta zuzendaritza-postuen maila zabalagoan sartzeko aukera gehiago izatea.

Espainiako barne egoera emakumeen lan munduari begira aldatzen joan zela ikusi egiten da, baina emakumeen aukerak ez ziren hor bakarrik geratu. Izan ere, 60ko hamarkadan atzerriko kontsumo produktuen markak iristen hasi ziren Espainiako mugen irekieraren ondorioz. Eta, lurralde horietako lan-merkatuan emakumeen eskulanaren presentzia nahiko zabala zen. Era honetan, marka hauen kokatzea Espainiako lurraldean, aukera eman zien emakumeei kutzazain, saltzaile eta bestelako lanpostuetan barneratzeko. Beraz, genero honen aukerak lan munduan handitu egiten ziren, hala ere, ez zitzaizkien botere handiko postuak esleitzen, eta postu berri hauen gehiengoa hirugarren sektorekoak (zerbitzuak eta zaintza) ziren: orokorrean prestakuntza gutxiko eta prekarietatea nagusi zeneko lan postuak.

Hirugarren sektore horren baitan, eta kontsumo produktuen marketatik at, hainbat emakumek lanpostua aurkitu zuten turismoari loturiko zerbitzuetan. Sektore honen hazkundeak,

¹¹ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1996ko iraileko 28a, zk.331, or 16392-16392.

¹² Espainiako telefono-konpainia nazionala

hainbat lanpostu berri sortu zituelako: hotel garbitzaileak, sukaldariak, zerbitzariak, hoteletako laguntzaileak eta abar luze bat. Hala ere, eskaintzen ziren postuen osotasunean, postu gorenak gizonetzkoenak ziren, ondorioz, postu baxuak emakumeenak. Berrero ere, lanpostuak generoen arteko bereizketa eginez.

Industria eta hirugarren sektoreaz aparte, garaian emakumeari esleitzen zitzaion bestelako lan bat zegoen, indar nabaria zuena, etxeko zerbitzuak. *“Hau, ezkonduen ohiko lana zen, eta bi abantaila nagusi aurkitzen dituzte: badakite egiten (gutxieneko prestakuntzak ez die beste aukerarik ematen), eta etxeko lanarekin, etxeen zaintzarekin eta familiekin bateragarria izan daiteke”*. (Sarasua, Carmen eta Molinero, Carme , 2008:14). Lan hau eskusiboa zen emakumeentzat, hauengan esleitzen ziren genero rol jarduera guztiak bilakatzen zituelako. Era honetan, pentsaezina zen gizon batek horretan lan egitea. Bederen, gizonak, semeek zein aitak, bere etxeetan laguntzen ez bazuten etxeko jarduerekin, beste etxe batzuetan lan hauek bilakatzea ezinezkoa izango litzateke. Honek erakutsiz, genero rola oso desberdinak zeudela eta hauen arteko mugak oso nabariak zirela.

Nabarmendu beharrekoa da, guzti hau gertatu zedin gizartean, aldaketa bat ere izan zen beharrezkoa, emakumeak ez direlako lan merkatuan sartzen, bakarrik, nazioarteko irekiera bat dagoelako. Honi lotua, Celia Valiente Fernandez-ek argudiatu egiten du, hiru faktore direla emakumearen lan mundurako irekiera laguntzen dutenak: ekonomikoa, soziala eta politikoa. Hiru arrazoi hauek beraien artean harremanetan jarri egiten dituelarik.

Politikarentzako, baliagarria da jendea lasai eta pozik egotea, eta hau horrela izateko, gobernuak gizartearen eskakizunak onartu egiten ditu. Eskakizunak betetzean, ekonomiak gero eta lankide gehiago izateak bideratzen du, era honetan, jende gehiago lan egiten du, produktibitatea handituz. Gizartearen langabezi maila baxuak, familia gehiagoren lan munduan sartzearekin lotuta, aberastasuna dakar, ondorioz, aberastasunak lasaitasuna handitu egiten du familietan eta eskala handiagoan, gizartean. Eta lasaitasuna izatearen ondorioz, eskakizunak gutxitu egiten dira. Era honetan, emakumearen liberazioa lan merkatuari begira taktika instituzionala den heinean, emakumeen onura ere bada. Azkenean, ekonomiarentzako, politikarentzako baliagarria dena, sozialki eskakizun bat asetu egiten du.

1.2. *Emakumea eta hezkuntza formala.*

60 hamarkadan, emakumeen zeregina ez zen etxeko lanak eta familiaren zaintza jardueretara mugatzen. Garai honen amaiera aldera eman ziren lege-aldaketak ez ziren aldaketa ekonomikoen edota politikoen ondorio bakarrik izan. Izan ere, lege-aldaketekin eta orain arte azaldutako transformazioekin batera, aldaketa kultura sakonak ere eman ziren feminitatearen esanguran eragina izan zutenak.¹³

Era honetan, lan mundutik at, emakumearen egoera ere, garrantzitsua izan zen bestelako sistema batean, hezkuntza sisteman. Hala eta guztiz ere, zentratzen ari naizen hamarkadaren zehar eman ziren aldaketa kulturalak, ez zuten eragin handirik izan hezkuntza sisteman. Sexuen arabera banatutako hezkuntza-sistema 1960ko hamarkadan mantendu egin zelako. Baina honek ez du esan nahi, ez zela inolako aldaketarik bideratu, zergatik, hamarkadaren amaieran abian zegoen hezkuntza sistemaren akatsei irtenbide egokienak bilatzeko eginkizun bat, Hezkuntzaren Liburu Zuria zena.

Hezkuntzaren Liburu Zuria idazteko, ministerio-taldea etengabeko lan-aste batean bildu zen, eta horren emaitza hezkuntza-erreformarako estrategia izango zen, garaiko hezkuntza sistemaren akatsak batzen zituen, 1969. urtean argitaratua. Liburu honen helburua, “hezkuntzak zituen arazo larrien panorama deskribatzea eta irtenbide egokiak iradokitzea” izan zen. Gizartearen aukerak hezkuntzaren arloan handitu nahi zituenak.

Bederen, hamarkadan sustatu zen mentalitate-aldaketa eta goi-mailako ikasturteetan ikastea erabakitzen zutenen artean, gero eta gehiago, emakumeak zirenak, hezkuntza sistemaren eraldaketa eragin zuten.

Eraldaketak bideratua, gobernuak 1970ean hezkuntza-sistema aldatzea erabaki zuen, 14/1970 Legea onartuz, Hezkuntzaren Lege Orokorra deitu zena, Villar Plasírekin Hezkuntza sailean. Lege hau, Espainiako hezkuntza-politikaren lehen lege-erreferentea izan zen.

Hezkuntza sistema berri honek, ikasle guztientzako hezkuntza bera planteatzen zuen, izan gizon zein emakume, eskola mistoa deritzona. Ildo horretan, adierazi behar da eskola

¹³ De Dios Fernández, Eider (2018). *Sirvienta, empleada, trabajadora de hogar: Género, clase e identidad en el franquismo y la transición a través del servicio doméstico (1939-1995)*. Málaga: Universidad de Málaga.

mistoa ezartzea ez dela eztabaida pedagogiko baten ondorioa, baizik eta formalki ikasleen arteko tratu-desberdintasunak ez dauden hezkuntza-sistema bat legitimatzeko beharraren ondorioa.

Hezkuntza sisteman eman zen aldaketa, ez du esan nahi sistema bi generoentzako moldatzen zela, gizonen hezkuntza sistema ez zelako aldatzen, izan ere, gizonek jorratzen zuten materia orokortu egin zen bi generoentzako. “(...)neskak eredu maskulinoan sartu ziren, eskoletan indarrean baitzegoen”(Ballerín, 2001). Hau kontuan edukita, nabarmeneko da, emakumeentzako bideratua zegoen materiala hezkuntza sistematik desagertu egin zela kasu gehienetan. Mojen ikastetxeak salbuespen bat izanik, hauetan "etxea" irakasgaiari eutsi zitzaizkion.¹⁴

Gainera, hezkuntza generoen berdintasuna guztiz bermatzen ez zuenaren beste adibide bat, eta emakumeenganako mespretxua zena. Emakumeek historian zehar literaturaren, zientziaren, erlijioaren, familiaren, gizartearen eta kulturaren esparruan egin zituzten ekarpenak,¹⁵ ez zirela garrantzitsutzat jotzen curriculum akademikoan sartzeko, izan zen.

Berritutako hezkuntza sistema, meritokratikoa zen, eredu horretan garrantzia zuelarik ikasleen meritua eta gaitasuna, klase soziala eta/edo sexua bereizi gabe. Generoen desberdintasunak jada ez ziren hezkuntza sistemaren puntu nagusia. Ez hori bakarrik, metodo berri honen bitartez, emakume eta gizon guztiek 14 urte bete arte egon behar zuten hezkuntza-sisteman, era honetan, bi generoak hezkuntza berdina jasotzen zuten 14 urte bitartean desberdintasunik “gabe”. Bederen, generoen desberdintasunak hezkuntza sisteman gutxituz, segregazioa ez zelako, ez fisikoki, ezta materialen bidez gauzatzen.

Goi-mailako hezkuntzara heldu baino lehenagoko mailetan, generoaren inguruko aurrerapauso nabariak eman ziren, genero desberdinen berdintasunera bideratuak izan zirenak. Baina, Goi Mailako ikasketei dagokienez, aldaketak ez ziren egon. Izan ere, Goi Mailako hezkuntza, 1888ko ekainaren 11ko Errege Agindua indarrean jarraitzen zuen, Unibertsitatean emakumeak ikasle pribatu gisa sartzeari onartzen zuena, baina Ministroen Kontseiluaren baimena

¹⁴ Velázquez García, Sara; Romano Martín, Yolanda eta Bianchi, Mattia (2018). *La mujer en la historia de la Universidad. Retos, compromiso y logros*. Madrid: Editores Universidad de Salamanca.

¹⁵Madrid Izquierdo, Maria Juana eta Lucero, Lidia Amanda (2010). Directrices de la política educativa de género en España (1970-2010). *Educatio Siglo XXI*, 28(2), 223-244.

behar zuten ikasle ofizial gisa inskribatzeko.¹⁶ Era honetan, berdintasunaren bidea eten egiten zen ikasten jarraitu nahi zuten 14 urtetik gorako emakumeetan, urte muga honetan, aukeren berdintasunerako ibilbidea eten egiten zelako. Emakumeak Goi Mailan sartu nahi izatekotan, ekonomiaren aldetik eskaera gehiago zituztelako, gizonekin konparatuz.

1.3. Emakumeak eta fenomeno migratzailea.

Populazioaren desplazamendua, migrazioa, etengabeko fenomenoak izan da gizateriaren historian. Garai bakoitzean ezaugarri bereziak hartu ditu eta azken bi mendeetan ekoizpen modu kapitalistaren garapenarekin lotura estua izan du. Espainia frankistaren kasuan, migrazio-fluxua areagotu egin zen 60ko hamarkadan zehar.

Bi migrazio mota eman ziren: kanpokoa, gehien bat Europako beste herrialde batzuetara bideratua; eta barnekoa, herrietatik Estatuko hirietara eman zena.

60 hamarkadaren hasieran, Espainia ez bezala, Europako lurralde asko industrializatuak zeuden, Bigarren Mundu Gerrak utzitako hondamenditik ateratzeko ahalegin handia egin zutelako. Marshall Planeko kredituek eta herrialde horien, bereziki Alemaniako Errepublika Federalarenak, antolakuntza-gaitasun onak eraginda, hamar edo hamabost urteren buruan beren ekonomien pultsua berreskuratu zuten, eta atzerriko eskulana erabili behar izan zuten garatzen jarraitzeko. Era honetan, Espainian, ekoizpen-ahalmen ahulak biztanleriaren zati bat langabeziara eramaten zuen bitartean, Europako herrialde horietan eskulana bilatzen zen, beren garapen-erritmo altuari jarraitu ahal izateko, beraz, Espainiar asko Alemaniara emigratu zuten lan bila.¹⁷

Erregimen frankistak segurtasun-balbula gisa hartu zuen kanpo emigrazioa, langabeziak, grebak eta landako populazio pobretuek hiri handietara egindako desplazamendu masiboek eragindako tentsio sozialen aurrean. Izan ere, langabeziatik edo lan prekariotik eta bizi-baldintza oso eskasetatik ihes egiteko beharrak bultzatuta, eta instantzia ofizialek bultzatuta, 1960tik 1973ra bitartean bi milioi espainiarrek emigratu zuten Europara, Europako soldata-maila hobeagoak erakarrita.

¹⁶ Velázquez García, Sara; Romano Martín, Yolanda eta Bianchi, Mattia (2018). *La mujer en la historia de la Universidad. Retos, compromiso y logros*. Madrid: Editores Universidad de Salamanca. zk 66.

¹⁷ Migrazio-politika frankistaren helburu nagusia migrazio-fluxuak bideratzea izan zen, herrialdearentzat onura handiena izan zezaten.

Espanian hiru mila milioi dolar inguru sartu ziren 60ko hamarkadan etorkinen aurrezkietatik, erremesak deitutakoak. Erremesak, migranteak jatorrizko etxera edo familiara bidaltzen zuten dirua zen, era honetan, jasotzaileen bizi baldintzak eta maila ekonomikoa hobetu nahirik. Fenomeno horrek aurrezki-kutxen, eta zenbait bankuren kapitalen eta finantza-ahalmenaren gorakada ikaragarria eragin zuen. Adibidez, Ourenseko Probintziako aurrezki-kutxa, honek per capita errenta apala izan zuen eta potentzia handia eskuratu zuen etorkinen aurrezkien bitartez. Gainera, erremesen bidez, estatuaren ekonomia ere hobetu egin zen, izan ere, dirua iristen zen estatura, baina jende gutxiago bizi zen Estatuan.

Europako beste herrialde batzuetara emigratu zuten gehienak, gizon gazteak izan ziren. Asko, eraikuntzak edo industriak eskaintzen zituen postuetara, gehienak prestakuntza gutxiko langileak edo landa-eremuko langileak ziren, eta hauetatik asko, kultura maila baxua zutenak. Juan B. Vilak adierazten duenez *“Langile egokiena 25 eta 45 urte bitarteko gizonezkoa da, ezkongabea, eta ez duena espezializaziorik edo espezializaziorik iritsi den unean.”*¹⁸. Hasiara, langileak bakarrik bidaiatu arren, gutxika familiako kide desberdinak ere lurralde hauetara bidaiatzen zuten familiaren nukleoa osatzeko.

Lanak bideratutako kanpo migrazioetan, gehiengoa gizonak izan baziren ere, emakumeek ere emigratu zuten,¹⁹ hauetatik gehiengoa ezkongabeak ziren. Izan ere, behin familia osatuta, ezkondua eta seme/alabak izanda, emakumeak senarrari jarraitu behar zion, honek bizitokia ezartzen zuen tokira, eta andreak ezingo luke bere kabuz emigratu. Familiadun emakumea, familia zaindu behar zuelako, hori baitzen emakume ezkondu batengatik espero zena.

Estatutik kanpora emigratzeko aukera izan zuten emakumeek, helmugako lurraldeetan, etxeko zerbitzuan lan egiten zuten batez ere. Ostera, salbuespenak zeuden, adibidez Alemanian. Helmugako lurralde honetan, emakumeak industrian ere zituztelako lan egiteko aukerak. Hau horrela, emakumeen lan-arloak ez ziren soilik genero roletara mugatzen, gizonezkoen sektorea bezala ikusten zena, industria, emakumearen eskuetara ere irizten zelako. Hala ere, Alemanian generoaren desberdintasunak ez zeuden guztiz desagertuta, batik bat, ospitaleetako, egoitzetako eta hoteletan zeuden lan-eskaintzak emakumeentzako zuzenduak zeudelako. Gehituz, Bonneko

¹⁸ Las emigraciones Españolas a Europa en el siglo XX: algunas cuestiones a debatir, testuan.

¹⁹ Alemanian, 1962an, Espainiako langileen% 74,2 gizonak ziren, eta% 25,8 emakumeak.

enbaxadako lan-agregatuak uste zuela aurretik aipatutako lanpostuak "neskentzat hobeak" zirela²⁰, alegia, helmugako herrialdean ere, lanpostuak generoaren arabera banatuz hein handi batean, lanpostu guztiak genero desberdintasunak bideratu ez arren.

Kanpoko migrazioaren antzera, 60. hamarkadan barne migrazio fluxuak nabarmendu egin ziren estatuan. Izan ere, 1960ko hamarkadan, ekonomiaren egiturazko erreformak Espainiako historian biztanleriaren mugimendu masiboa bultzatu zuen. Beraz, migrazio handi horiek urte horietan bizi izan zen industrializazio-prozesuarekin batu egiten da: *“Bigarren industria-iraultza bat gertatu zen, benetako 'landa-giroko exodoa'. Bigarren industria-iraultzarekin, Francoren egonkortze-politikari egiten dio erreferentzia.*²¹

Desarrollismoan, biztanleriaren zati bat herrietan bizi zen, asko lurraren mantenuan eta nekazaritzan lan egiten zuten, hala ere, sektore honetako bizi baldintzak txarrak ziren, erabiltzen ziren makinak zaharkituak zeudelako, jorratzen zen lanari zailtasun bat gehituz. Gainera, irabaziak, askotan ez ziren nahikoak oinarritzko bizi-maila izateko. Hau ikusita, estatuak nekazal eremuko makineria modernizatu zuen, langileei erraztasunak emateko lana garatzean, eta egiten zen lanetik etekin gehiago atera zezaketen. Baina, honek nekazal mundua produktiboagoa egin arren, jende asko makinen erruz, lanik gabe gelditu ziren, nekazaritza mekanizatzean laneratu soberakina sortu zuelako, langile askoren hirira joatea sustatuz, hirietan garatzen ari zen industrializazio zela eta. Herrietatik hirietako mugimenduan, Katalunia, Madril eta Bizkaia buru jarri zituen per capita ekoizpenaren eta errentaren indizeetan.

Industrializazioak lanpostuak sortzen zituen etengabe hirietan, era honetan, gero eta jende gehiago behar zen industrian lan egiteko. Gainera postu hauetan, lan eskuaren ordainean soldata egonkorak ematen ziren eta lan egiteko baldintza aproposagoak eskaintzen ziren, nekazal eremuan ez bezala, lurralde hauetan hilabetearen arabera etekinak lortzen baitziren, baldintza txarrekin askotan.

Baina hau ez zen izan arrazoi bakarra herritik-hirirako mugimenduan, izan ere, gobernuak estabilizazio planaren garapena aurrera eramateko nekazal-exodoa sustatu zuen.

²⁰ Migraciones & Exilios: Cuadernos de la Asociación para el estudio de los exilios y migraciones ibéricos contemporáneos, irakurgaiko 40. orrialdean.

²¹ Slomp, Henk Jan (2004). *La despoblación del medio rural español. Un estudio sobre las causas, consecuencias y política con respecto a un proceso de éxodo. Diversificación rural en Matarraña, Teruel.* Tesis doctoral. Países Bajos: Universidad de Groninga.

Zeren, jendea behar zuen hirietan zeuden enpresetan lan egiteko, eta bide batez hauen garapena sustatzeko. Honekin bat, eta Aurora Morcilloren hitzen arabera, 60ko hamarkadan erregimena modernizazio prozesu batetik pasa zen, kontsumoa sustatzeko eta diktaduraren biziraupena aurrera eramateko, Espainiako estatua ezin zelako bestelako estatuetatik hain atzeratuta geratu, eta bide batez, diktaduraren aurpegia garbitzeko bestelako lurraldeen aurrean.

Erregimenaren diskurtso aldaketa, Sánchez Jiménez-ek honen inguruan azaldu egiten du, gobernuak publizitatearen eta propagandaren bitartez, “kanpoko”, hau da, herrikoa ez zena sustatu nahi zuela, horrela, hirietako garapena bideratzeko. Eta hirira heltzean, amestutako bizitzarik aurkitzen ez zuten arren, herrietako bizitza itxaropenak hobetzen zituzten, aurkitzen zuten bizitzeko modu berriaren bitartez.

Nekazal-exodoak hirietako populazioa handitu egin zuen, era honetan, eta hirietan eskaintzen ziren lanpostuak betetzeko genero bakoitzak bide desberdina igarotzen zuen, horrela, lanpostu desberdinak jorratuz. Gizonak betetzen zituzten gehien bat enpresetako eskaintzak, eta etxeko zerbitzurako enplegua, emakumeentzako oinarrizko lan-aukera izaten zen. Era honetan, kanpo emigrazioan ez bezala, sexu segregazioa sistematikoki ematen zen, genero bakoitzak bere lan mundurako bidea zuelako.

Emakumeak, herritik hirirako bidaiari, eta hirietan, zerbitzuan lan egitera eraman zituzten arrazoiak ez ziren beti, miseriari edo pobrezari lotuak, lan hauek ere, jorratzen baitzituzten emigratzeko aitzaki bat bezala, helmugako hirietan ekonomiari lotutako, ekonomia mailaz igotzea bilatzen zutelako. Gainera zerbitzu hauek, aldi baterako enpleguak ziren, beraz, ez denbora luzerako modukoak.²²

Guztiarekin bat, ikusi daiteke, garaiko gizartearen pentsamendua aldatuz zihoala, jada emigrazioaren arrazoiak aldatzen ari zirelako, konkretuago, emakumearen pentsatzeko eran eraldaketa bat eman zela. Emakume guztiak ez izan arren, hauetako batzuk gizonaren laguntzarik gabe beraien errealitatea sortu nahi zutelako, era independente batean, eta beraien buruan pentsatzen batez ere. Gainera, ekonomia on bat bilatzen zuten beraien kabuz eta beraientzat onuragarria zena, gizona bere planetan agertu barik. Eta hau ideien aldaketa bezala

²² De Dios Fernández, Eider (2018). *Sirvienta, empleada, trabajadora de hogar: Género, clase e identidad en el franquismo y la transición a través del servicio doméstico (1939-1995)*. Málaga: Universidad de Málaga.

ikusi daiteke, garaian emakumea gizon baten bila hasten zelako adin konkretu bat igaro ahala, honekin familia bat izateko. Beti ere, gizona emakumeen bizitzan egonda, ez emakumea, modu independente batean.

2.- FRANKISMOA, EMAKUMEA ETA EMIGRAZIOA PELIKULETAN ETA ELKARRIZKETEAN.

Behin 60ko hamarkadaren inguruko datu ekonomikoak, emakumearen ingurukoak eta migrazioarenak jorratu ditudalarik, elkarrizketetatik eta pelikuletatik lortutako testigantzak eta egoerak analizatuko ditut, ikusteko hauen arteko paralelotasuna, eta gizabanakoek nola bizi eta interpretatu zituzten gizartean jorratzen ari ziren aldaketak.

Material ezberdinekin egindako analisia atalka banatuko dut. Azpiatalak honakoak izango dira: emakumeak etxeko eremuan, emakumeak hezkuntzan, emakumeak lan merkatuan, barne migrazioa eta kanpo migrazioa.

2.1. Emakumeen izateko era “egokia” etxean.

Azpitalde hau, teorian aipatutako, emakume “egokiaren” eta familia tradizionalarekin kokatu egiten da, landutako materialetik interpretatu ahal delako, garaiko gizartean, familia mota honek zuen arrakasta. Gainera, eta emakume “egokia”ren inguruan 60ko hamarkadan egondako aldaketak pelikuletan zein testigantzetan presente ikusi ditzakegu.

Familiaren irudia lantzeko pelikula erabilgarriak izan dira: *La vida alrededor* eta *La gran familia*. Bietan, familia tradizionalaren eredia, eta horretan emandako aldaketak aztertzeke aukera izan dut eta.

Filmetan zehar, familia eta emakumea arazo desberdinetatik igaro ahala, arazoak konpondu egiten dituzte, maitasunari eta familiaren laguntza bezala ulertzen denari esker. Zergatik, erregimenarentzako, familia tradizionala zorientasunerako bidea da, gehituz, poztasunaren, lasaitasunaren, ahalguztidunaren ahalmena duen taldea. Bederen, pelikulen bidez irudi hau, eta irudi honek transmititu egiten duen guztia, bizitza perfektuaren irudia, gizarteratu egiten da, bermatuz, gizarteko familiek erregimenak nahi duen familia egitura izatea, transmititu egiten den bizitza perfektu eta zorientsuaren bidez.

Familia tradizionala, zorientasunerako bidea delaren adibidea, *La vida alrededor* filmeko amaiera izan daiteke. Amaieran ikusten delako, familiaren apurketak nolako

ondorioak dituen taldeko kideen artean, tristura eta ezinegona bestelakoen artean, baina familiaren bateratzearekin sentimendu negatibo hauek desagertu egiten dira. Filmaren amaierako eszena epaiketa baten inguruan jorratu egiten da, senarra delarik epaituaren defentsarako abokatua, hala ere, defentsa zalantzarria bilakatzen du, bere familiaren apurtzearen ondorioz sentimendu negatiboak sentitzen dituelako. Baina epaiketa bideratu egiten da, emaztea agertzen denean. Honek, begirada baten bidez, senarrari familiak eskaintzen dizkion sentimendu onak gogorarazi egiten dizkiolako, bere familiaren berreskuperatzeko nahiak handituz eta bide batez, momentuan sentitzen dituen sentimendu positibo bidez, epaiketaren defentsa hobetu egiten du, bere bezeroak epaiketa irabaziz.

Era honetan, irudi honen bitartez gizarteari erregimenak erakutsiz zer nolako abantailak dituen familia tradizionalaren parte izateak, izan ere, talde honen maitasunak babestuta sentiarazten zaitu, eta, horri esker, bizitza zoriontsua izateko aukera eskaintzen dizu.

Familiaren barnean dauden partaideen zenbakia ere bere garrantzia du, familia tradizionalaren barnean, eta 60. hamarkadako Espainiar gizartearen barnean, gero eta seme gehiago izateak, gero eta poztasun handiagoa izatearen ideiarekin lotzen baitzen.

La gran familia pelikulak, filmaren azkeneko eszenan argudio honi erreferentzia egiten dio, amak aitari esaten dionean ahurdun dagoela, eta hamabost seme/alaba izatetik hamasei izango direla. Aitak erantzunean, poztasunez begiratzen dio, laztanak egiten dizkion bitartean. Era berean, *La vida alrededor* pelikulan argudio honi ere erreferentzia egiten diote, seme/alaba gehiagoren nahia aldarrikatzen dutelako, amak pelikula osoan zehar seme bakarria izatearen ideia alboratzen duenean, eta seme/alaba gehiago izatearen alde adierazten duenean, “*Los hijos dan buena suerte Antonio*” (La vida alrededor, Ama; 46:19).

Era honetan, bi filmetan ikusi dezakegu ume asko izateko griña, eta honen bidez adieraziz, poztasun handiagorako bidea igarotzen dutela. Alegia, ideia honen bitartez frankismoak, benetako poztasuna non dagoen alarazi egiten du. Ahaztu barik, gero eta seme/alaba gehiago izateko, aberastasun maila gero eta handiagoa izan behar zela, era honetan, garairako bi aldagai garrantzitsu zirenak batuz guztizko poztasuna lortzeko: seme/alabak, eta aberastasuna/dirua. Izan ere, urte hauetan kontsumismorako bidea sustatzen ari zen.

Taldeko partaide kopuruaz aparte, generoen desberdintasunak ere, bere garrantzia zeukaten, hauek eguneroko ekintzak zirelako. Genero bakoitzak bere rolak zituen, eginkizun desberdinetara bideratuak zeudenak.

Desberdintasun hauek, era nabarmenean ikusi daitezke *La gran familia* filmean, honetan, emakumeak direlako etxeko garbiketaz eta zaintza lanen inguruan jardunetan dutenak, hots, ikasteko adinean daudenak, ikasketak eta etxeko lanak partekatu egiten dituztelarik. Eta gizonak, gehienak ikasteko adinean daudenak, soilik ikasten dute, eta lan egiteko adinean daudenak, soilik lan egiten dute, emakumeak ez bezala, etxeko lanetan parte hartu barik.

Generoei bideratutako desberdintasunak, testigantzetan ere nabarmendu egin dira. Mirenen kontakizunean adibidez, honek era oso argian gogoratzen baititu rol hauek: “*Bai, sexuaren arabera zeuden bananduta etxeko ardurak, emakumeok etxeko lan, gabiketaz, janaria, e.a.*”.

Generoen desberdintasunak gizartearen eredu sozial bat bezala inposatuak zeuden, genero bakoitzak bere eginkizunak zituen, tradizioaren eta erlijioaren izenean finkatuak zeudenak, eta hauek, era sistematikoan betetzen ziren, modu horretan adieraziz, balore eta tradiziozko pertsona zuzena zela, rolak betetzen zituen pertsona. Gainera, hauen jarraitzeak, gizartearen parte bezala sentitzeak suposatzen zuen, alderantzizko portaerak, sozialki ez zeuden onartuak, bederen ekintza okerrak zigorra zutelarik, gizartearen mespretxua besteak beste.

Gizartearen mespretxua gehienetan emakumeak sufritzen zuten, hauek askatasun gutxiago zutelako rolen ekintzak ez betetzeko, gizonekin parekatuz. Era honetan, rolak betetzen ez zituztenak era zorrotzago batean epaituak ziren gizartearen begietatik. Emakumeen rolak zorrotzagoak zirela, pelikuletan ikusi daiteke, hauetan, emakumearen eginkizunez gehiago hitz egiten delako, behin da berrik azalduz, zeintzuk ziren emakumeen mugak eta betebeharrak. Alderantziz, gizonaren paperaren inguruan ezer edo gutxi aipatuz, begi-bistan utzirik emakumearen mugak zorrotzagoak zirela eta hauen betetzea garrantzi gehiago zeukala gizartearen begietan.

Beraz, rolak, kontrol sozial bat bezala funtzionatzen zuten, era honetan, gizartearen parte izan nahi zutenak, arau hauek bete behar zituen, onartuz tradizioak beraien generoei inposatzen zizkion ekintzak. Hausnarketa hau hobeto ulertzeko, Michel Foucault-en diziplinaren inguruko hausnarketa aipatuko dut, zeinentzako diziplina, indibiduoak fabrikatzeko eta jokabideak zuzentzeko teknika da, honen arabera, gizartean bizi diren gizabanakoek nolabaiteko portaera izan behar dute sistema menderatzailearentzako atseginak izateko.²³

Aipatutako roletan emakumearen eginkizunak zehaztuak zeuden, baina herriko eta hiriko emakumeen betebeharrak ez ziren berdinak. Herriko emakumeen esperientzietara gerturatuz gero, era nabarmenean ikusi daiteke, emakumeak etxeko lanez arduratzeaz **gainera**, soloan ere jarduten zutela, genero bakoitzaren murrizketak herrietan hain zehatzak ez zirela agerian utziz; izan ere, emakumeek lurrian ematen zuten laguntza beharrezkoa zen baserriko lanak egin ahal izateko. Hortaz, baserrian ez da hain banaketa zorrotza ematen espazio publiko eta pribatuaren artean, banaketa askoz ere difusoagoa da non hasten den kalea eta non bukatzen den etxea. Egoera, hau jardun egin ditudan herriko bi profiletan agerian gertu egiten dira:

*“Ama izaten zen garbiketaz arduratzen zana, baina soloan **bebai** jarduten eban. (...).” (Antonia).*

*“Etxeko-lanak beti amak. Eta kale... kanpoan **bebai**, ze soloan **bebai** bera joaten zan.” (Agurtzane).*

Bi testigantza hauen bitartez antzematen dugu emakumeak beren rolen barnean kokatu egiten ziren zereginetatik aparte, herrian, gizonaren laguntzailea bihurtzen zela. Bederen, gizonak bakarrik ezin baitzuten jarduerak jorratu, era honetan, gizonaren profil sendoa, guztiaren ahalduna... hirian baino ahalmen gutxiago zeukan.

Zaintza lanak ere, emakumearen eginkizunen barnean zeuden, eta horrela adierazten du Mirenek bere elkarrizketan, lan hauen arduradun bezala “*emakumeak*” erantzuten duenean. Gainera, *La vida alrededor* eta *La gran familia*-n ere islatu egiten dira zaintza hauek. Hiruretan agerian geratu arren zaintzak emakumeen jarduerak zirela, hiruretan, zaintzak ez dituzte hartzaile bezala profil berdinak erakusten. Alde batetik adinekoen

²³ Urraco-Solanilla, Mariano eta Nogales-Bermejo, Gema (2013). Michel Foucault: El funcionamiento de la institución escolar propio de la Modernidad. *ANDULI, Revista Andaluza de Ciencias Sociales*, (12), 153-167.

zaintzara bideratzen direlako eta bestetik umeen zaintzara. Mirenek ere horrela alarazi egiten du, **“Zer pertsona ziren zaintzak behar zituztenak zure etxean”** galderari: *“Umeak eta nagusiak”* erantzuten duenean.

Umeei eta adinekoei bideratutako zaintzak, desberdin ulertu daitezke. Adinekoen zaintzak agerian uzten baitu emakumea gizonaren azpitik kokatzen dela, genero hau delako beti ere adinekoen zaintzak jorratzen dituen, gizonaren betebeharretik kanpo geratzen baitzen ekintza hau. Beraz, gainerakoek mendeko papera betetzen zuen, eta zaintzaile funtzioak markatzen zuen bere bizitza, besteen beharrei erantzuteko eta hauen eskakizunak erantzuteko beti prest zegoelako, borondatez edo ez borondatez bazen ere. Beste aldetik, umeen zaintza zegoen, hau, emakumeen eginkizun bat zen, gizarteko baloreei eta emakumeari genetikoki esleitzen zitzaizkion eginkizunetara lotuta zegoena.

Umeen zaintza eta hauenganako zerbitzura egotea, ama onaren irudia garatzen zuen, gizarteak nahi zuen amaren irudia, seme-alabeei denbora gehiena eskaintzen ziona. Hala ere, seme/alabeei denbora gehiena eskaintzeak, ez du esan nahi senarrari esleitutako arreta desagertzen zela, emakumeak, seme/alabak zaindu behar zituelako, etxeko lanak egin eta senarrari, berak eskatzen zuen arreta eskaini behar zitzaion. Hau baitzen emakume onaren irudia, eta irudi hau bi filmetan ikusten da, emakumeak ekintza guztiak egiten dituztelako familia-kide guztien ongizatea bermatzeko, beraien ongizatearen gainetik. Honen bidez erakutsiz, lehenengo planoan familia zegoela, talde hau garrantzitsuena zelako erregimenaren ideientzat eta erlijioaren begietarako. Eta hurrengo plano batean emakumea, beti ere, besteen azpitik, gizonarengandik maila baxuago batean.

Kasu gehienetan, emakumea izan arren etxeko gauzak eta zaintzak egiten dituen, ez da kasu guztietan etxeko emakumerik adinez handiena izaten, ama. Izan ere, ama ez dagoenean edo ezin duenean, etxeko beste emakume bati pasatu egiten zaio testigua, gehienetan amaren osteko adinez handiena dena. Elkarrizketatuen artean, Agurtzane, honen adibide bat plazaratu egiten du, neskatoa bere aitona amonen etxera joan zen zaintza lanak burutzera; etxe honetan osaba ezkongabe bat ere bizi zen eta haren gaineko zaintzaren ardura ere hartu zuen. Horrela adierazi zidan Agurtzane: *“Niri adibidez toka zeiten jagoten aitite eta amama, (...)”*. Aurrekoan bezala, emakumea besteen zerbitzura dagoela ikusi dezakegu, bere errutina eta bizitza propioa aldera batera utzi behar duelarik.

María bere kontakizunean ere, honen adibide bat ematen du, ama etxetik kanpo egiten duelako lan, era honetan, etxeko neska handienari tokatzen zaio amaren papera jorratzea. “(...) *La mayoría de las cosas las hacía mi hermana la mayor*”, “*La edad lo marcaba todo, yo se que si fuese la mayor me hubiese tocado a mi hacer lo que mi hermana hacía*”. Honen bidez erakutsiz, emakumea familiako hierarkian zein postuan kokatzen den, gizonaren azpitik berriro ere. Hala ere, hierarkia honetan emakumeak gizonaren azpitik kokatzen badira ere, emakumeen artean postu gorena daukana adinez handiena da, gero adinaren arabera kokatuz gorenetik baxuenera.

Pelikuletan kasu hau ere erakutsi egiten da, *La gran familia y uno más*en alegia, honetan familiako ama hil egiten da eta. Ondorioz, emakumeen hierarkiaren arabera, etxean bizi diren emakumeetatik adinez handiena, etxeko lanen eta familia-kideen zaintzak jorratu egiten ditu, amaren testigua hartu egiten duelarik. Hala ere, film honetan ez du konkretuki testigua hartzen adinez handiena, honen hurrengokoak baizik.

2.2. Emakumeak eta hezkuntza.

La familia y uno más filma dugu, hezkuntzaren barnean, generoen arteko desberdintasunak era nabarmenean azaleratzen dituen filma. Honetan ikusten da, ikasgelako segregazioa emakumeen eta gizonen artean, eta gizonen kalifikazioetan familiak duen interes handiagoan. Era honetan, emakumeen hezkuntza pisu gutxiagoa daukala erakusten da, espazioan eta honen kalifikazioetan.

Generoaren inguruko desberdintasunak, ez ziren inguru guztietan azaleratzen, eta Agurtzaneren testigantza dago honen adibide gisa, “(...) *eta danok egoten ginen, neskatoak eta mutilak, (...)*”, genero rolen desberdintasunen inguruko ezer aipatu barik, ez materialean ezta espazioan ere ez. Hala ere, hau ezin da orokortu, hiriko Mariaren testigantzak kontrakoa aipatzen duelako, “*De los años de estudio no me acuerdo mucho, pero me acuerdo que a nosotras nos enseñaban más como ser buena ama de casa, o aprender a coser, a ellos no.*”, era honetan, eta kasu subjektiboak diren arren, hauteman daiteke erregimenaren kontraesan bat.

Erregimenak herriko bitza goraiatzeko zuelako, herrian zeuden baloreak eta tradizioaren bilakaera zuzenenak zirela adieraziz, baina Agurtzaneren esanen bitartez ikusi daiteke kasu

batzuetan herriko parekotasuna ez zela hain bikaina, bertan hezkuntzaren inguruan jasaten ziren mugak ez zirelako guztiz betetzen, erregimenak bilatzen zuen parekotasunaren kontra bahit zegoen batzuetan, aipatutako kasuan adibidez.

Hamarkadan zehar hezkuntzaren inguruko aldaketak gutxi izan ziren goian planteatutako informazioaren arabera, hala ere, aldaketak bai egon ziren, eta hauetako batzuk, “Hezkuntzaren liburu zuriaren” argitalpenaren bitartez gertatu ziren hein handi batean. Liburu honetan agertzen baitzen, emakumeen partaidetza baxua hezkuntza sisteman eta eskari handia, eta nola legearen aldaketaren bidez, eskariaren eta partaidetzaren arteko aldea aldatu egin nahi zen.

Testigantzen eta pelikulen bitartez, ateratako bizipenetan, eta hauek objektibotasunaren erreferente ez izan arren, ikusi daiteke legearen aldaketa ez zela nahikoa izan kasu batzuetan, izan ere, profiletatik eta filmeko emakumeetatik, askok, ez zuten ikasten jarraitu beraien beharrak behar zirenean zaintza lanetarako edo etxeko lanetarako. *La familia y uno más*en, amaren testigua hartzen duen neskatoa izanik honen erreferentzia, honek ikasketei garrantzi gutxiago ematen dionean familiaren barneko beste kide batzuen zaintzak jorratu behar dituenen. Era berean, beste erreferentzia bat, Agurtzane izan daiteke, honek bere egunerokoa, ikasketak barne, utzi egiten dituelako bere amama/aititeren etxera joateko, hor zaintza lanak jorratzeko.

Era honetan, interpretatu dezaket, errealitatean, legearen gainean egindako aldaketak ez zirela nahikoak izan, izan ere, errealitatea ez delako aldatzen lege baten aldaketaren bitartez.

Horrenbestez, emakumeak hezkuntza formala uzteak, ez du esan nahi, emakume guztiek ikasketak guztiz utzi egiten zituztela, alegia, ikasteko era desberdinak zeuden, hezkuntza sistematik at, era honetan, emakume batzuk ikasteko aukera izaten jarraitu zuten “(...) *mis madre me llevó a casa de mi tía y allí aprendí a coser (...).*” (*María*). Alabaina, ikasten jarraitu arren, profil honen testigantza berriro ere erakusten du, genero desberdinek izan zuten indarra hezkuntza arloan, emakumea ikasten jarraitu arren, emakumeari rolei bideratutako ikasketak erakusten zitzaizkielako. Aldiz, badaude emakumeak hezkuntza sistematik ez zirenak atera, “*Nik ikasi du nahi dudana, irakaskuntzan egin dut lan (...).*” (*Miren*). Nolanahi ere, nahiz eta sistemaren barnean egon, honek ere generoaren barneko ikasketa esleituen ikasketak jorratzen ditu, ikustaraziz, hezkuntza sistema ez zela demokratikoa, eta emakumeen parte hartzea handitu

arren, hauen ikasketak bide berberera bideratuak zeudela, emakumearen rola menpean onartuak zeudenak, magisteritza, erizaintza... besteak beste.

2.3. Emakumea lan munduan.

Uztailaren 22ko 56/61 legea, lehenago azaldu dudanez, emakumeari mundu laboralari bideratutako bide gehiago zabaldu zizkion. Lege aldaketa horrekin lotuta, eta 60ko hamarkadan eman ziren lan munduko aldaketen inguruko hausnarketarako aukera paregabea ematen du *Los derechos de la mujer* filmak, honetan ikusten baita, garaiko maskulinitate batzuen artean lege aldaketa horiek sortu zituzten ezinegonak. Lege/aukera berriek haien autoritatea zalantzan jartzen zutela sentitu zuten gizonak, ez zirelako dirua etxera eramanez zuzen zuzen bakarrik, eta beraz, emakumearen aldetik irabazitako dirua, emakumeen independentzia ekonomikorako bidea sortzen zuelako. Jada ekonomiaren aldetik, emakumea beraien azpitik ez zelako osotasunean kokatzen.

Honi lotua, gizonaren ezinegona, pelikulan agertzen da bikote ezkonberri baten irudiaren bitartez, protagonista, emakumea, ezkondu ondoren lanean jarraitu nahi du, abokatu bezala; noski, etxeko lanak egiten jarraiturik, baina egoera hau ez zaio gizonari gustatzen, ez duelako onartzen bere emazteak ezkondu eta gero lan egiten jarraitzea.

Lehen aipatu bezala, egoera honek gizonaren autoritatea zalantzan jartzen zuen, jada ez zen dirua etxera eramanez zuzen zuzen bakarrik eta bere aginduek ez zuten lehen zuten eragin berbera. Izan ere, emakumeak dirua izatea beraien kabuz, senarrarengandik mendekotasun gutxiago sentitzera eramanez zituzten, orain, beraien kabuz kapazak zirelako dirua irabazteko, senarraren beharra bizi kalitate duina izateko momentuan ez zen hain handia.

Gizonak zeukan autoritatea, eta hau galtzeko sentimendua ez zen beti arazo larria, eta hau ekonomiarekin harreman estua daukela pentsatzera eramanez nau. Zeren eta, *Los derechos de la mujer* pelikulan, bikotea erdi goi mailakoa zen, beraz, emakumearen lana uzteak ez zuen arazo oso larria suposatzen, etxean dirua²⁴ zegoelako, eta soldata bakarrarekin gizonaren nahia

²⁴ kasu honetan, gizonak etxean sentitzen duen autoritatearekin batera dirua harreman egiten dut, izan ere, diruaren maneja eramateak, emakumearen gainetik kokatzearen sentimendua eragiten diolako gizonari, etxeko ekonomiaren saindaria eta ekozlea delako, etxeko sutengua bideratzen duena.

betetzen zen (bizitza duin edo eroso bat eramatea). Horrenbestez, erdi goi mailako ekonomia ez zeukan bikote baten egoera, ez zen berdina, erdi mailako edo goi mailako ekonomia ez izateak, lanaren beharra markatu egiten zuelako. Era honetan, lanaren beharra familia baten barnean bazegoen, kasu gehienetan ez zieten emakumeari iradokitzen lana usteko, honen mozkinak beharrezkoak baitziren. Beraz, egoera honetan ekonomiaren maila eragina zuen emakumearen lanera joateko jarreran.

Hala ere, lan motak desberdintasuna markatu zezakeen, izan ere, pelikulako protagonista abokatua da, boterea daukan postua eta beraz, gizonaren maila burokratikora hurbiltzen da. Ostera, autoritate galera ez da joan behar emazteak lan egiten duenarekin lotua, baizik abokatua izateagatik, boterea daukan lanpostua.

Goiko paragrafoan aipatu bezala, filmean²⁵ gizonak ulertzen duenean ezkondu eta gero emakumeak lana utzi behar duela bikoteari eta familiari denbora eskaintzeko, Mariak ere, horrela aipatu egiten du, “*Estuve en casa de mi tía trabajando hasta que me casé. Cuando me case lo deje todo para dedicarme a mi marido y a mi familia.*”. Nolanahi ere, hau ez zen bakarrik gizonen ideia bat, emakumeen pentsatzeko eran ere kokatzen zen ideia bat zen. Jada, gizartearen partaide guztiak erregimenak inposatutako lege eta ideien barnean egiten zutelako bere egunerokoa, ia planteaturik gabe hauen eginkizunen zergatia.

Orain arte, atal honetan azaldutakoaren arabera, herriaren eta hiriaren arteko rolak emakumearen gainean eta lan munduaren barnean, antzekoak izan dira, lanpostu antzekoetan lortuz lana, genero honi esleitutako roletan gehienetan, etxeko andre edo zaindari moduan, ezkontzaren osteko egoera... Baina honek ez du esan nahi desberdintasunik ematen ez zirela. Bereizketa nabariena testigantzetan jartzen badut puntua, lan munduan murgiltzea izango lirateke, herriko emakumeak eskolaratzea lehenago uzten zutelako, lana bilatzeko arintasun gehiagorekin. Eta, honen adibidetako bat, herriko profil baten, Antoniaren, bizimodua izango litzateke, zein txikitatik lan egiten zuen, “ (...) *Bederatzi urtegaz ume ume bat jagoten krida egon nintzen. (...) 14 urte egin nabenean Fabrika hilaos Ugaure, (...)*”.

Emakumeak garatzen zituen lanak, ez ziren beti erremuneratuak izaten, izan ere, kasu batzuetan “hori zen emakumeen eginkizuna familiakoengan” esaldiaren bitartez, emakumeak lan egin behar zuten, baina maitasunaren izenean, diru-trukerik gabe, hauek “emakumeen

²⁵ Sáenz de Heredia, José Luis (Zuzendaria) (1963): *Los derechos de la mujer*. España: Anabel Films.

beharrak” zirelako; hauen barnean, zaintza lanak, etxeko garbiketa... zeudelarik. Era honetan laguntza eskaintzea ez zen ezta pentsatzen, soilik emakumearen lanak zirelako.

Hirietan aurreko paragrafoan planteatutako kasuak ematen baziren ere, herrietan nabariagoak ziren, modernitatea lasaitasun gehiagorekin heldu zelako, era honetan, emakumeen lan munduratzeari ere motelagokoa zelarik. Hortaz, herrian kokaturik, eta bi generoen lanen konparaketan, emakumeek gizonak baino lan gehiago egiten zuten, emakumeak soloan lan egiten zutelako eta merkataritzan zeudelako, gizonak soloa bakarrik landuz. “*Ni akordetan zan amaine zela batuten zela batuten zuen bainak hemen eta holan, (...)*”(Agurtzane).

Hortaz, bi generoen arteko desberdintasunak herrian, agerian geratzen dira. Izan ere, gizonak emakumeak baino denbora gehiago lan egiten zuten, eta gizonek egiten ez zuten lanak jorratu arren, eta lan hauek erremuneratuak ez izan arren, denbora tarte gehiago egoten ziren lanean. Hala ere, gizonen eta emakumeen lanak ez ziren berdin balioztatzen, emakumeen esfortzu gehienak gutxietsi egiten ziren eta, emakumeen eginbeharrak bezala ikusten zirelako, ez lanak bezala. Emakumeak soloan eta etxeko lanetan jorratu arren, gizonak ez zituzten emakumeak laguntzen, lan horiek emakumearenak zirelako, hauen rolei lotuak zeuden eta.

2.4. Barne migrazioa.

Barne migrazioari begira, herriaren eta hiriaren arteko errealitate desberdinak erakusten dituen, eta leku batetik besterako bidaiaren egondako arazoak istorioaren erdigunean kokatzen dituen filma: *La ciudad no es para mi* (Lazaga, Pedro, 1966) da.

Barne migrazioa, 60ko hamarkadaren aurretik zegoen fenomeno bat izan zenenez, 50eko beste film bat erabili dut, *Surcos* (Nieves Conde, José Antonio, 1951), honen bitartez hamarkada batetik bestera aldatu ez ziren puntu batzuk analizatzeko.

Herritik herrirako bidaiak, nahiz eta, hainbat arrazoiengatik gertatu, testuinguruan aipatu dudana bezala, arrazoi guztietatik badago bat besteak baino pisu gehiago zuena, ekonomikoa zena. Hau, familiaren beharrei lotua, edo erregimenaren 60ko hamarkadako ideien aldaketekin bat ere lotu litzake, erregimenak helburutzat zutelako kontsumoaren sustapena. Hau horrela, helmuga lekua hiria izanik, honetan baitzeuden dendak, industria.... Ondorioz, leku honetako irudi paregabea bidali nahi zen gizartera. Beraz, honek, pentsatzera eramaten nau, erregimenari

inporta zitzaiona ez zela gizartearen aurrera egitea, baizik eta ekonomiaren hazkundera, hau da, estatuak dirua izatea.

Surcos filmaren garaian erregimenaren ideien aldaketa indarrean ez zegoen arren, bai hasia zen bloke kapitalistaren onespina bilatzen. Hala ere, arazo ekonomiak zer nolako indarra zuten familia arloan ikusteko baliagarria den filma dela pentsatzen dut, honetan familia baten irudia ikusten delako hirira heltzen direnean. Leku berri honetan, lan postu baten bila murgiltzen dira, honen bitartez herrian zeukaten egoera eskasa, ekonomiari eta bizi baldintzei lotua hobetu nahian, helmugako lurraldean lortu nahi dituzten lanpostuei lotutako soldaten bitartez, hauetan herrian baino gehiago lortzen zelaren ideia zeukatelako. Era honetan, erakutsiz, familia barneko arazo ekonomikoak nolako ezinegona sortzen duten taldean, beste leku batera mugitzeko beharra sortuz, aukeratutako lekua hiria izanik, beraiek pentsatzen zuten aukeraz beteriko leku perfektua ez izan arren. Hiriaren inguruko kontakizun paregabeak, hain paregabeak ez direla ikusten baitute hirian bizitzen daudelarik.

60ko hamarkadan, 50eko hamarkadan bezala, nekazal exodoa eragiten zuen arrazoirik indartsuena ekonomia zen, eta ekonomiaz aparte beste arrazoiak erakusten dituen filma, *La ciudad no es para mi* da. Honetan familiaren partaide bakoitza kokaleku desberdinetan bizi dira. Aita, jada nagusia, herrian bizi da bakarrik, eta bere semea hirian bizi den medikua da. Nolanahi ere, semeak egiten duen ibilbidea herritik hirira izan arren, interesatzen zaidan migrazioa aitarena da. Profil hau herrian bizi delako, diru faltarik gabe, eta bere bizimodua ez da txarra, lagunak dituelako, errutina egonkor batekin. Alegia, dituen lagunak eta herriko pertsona desberdinak konpainia eta laguntza behar desberdinetan eskaini arren, familiarik gabe herrian bakarrik sentitzen da, beraz, familiarekin elkartzeko nahiarekin hirira doa, biloba, erraina eta semearen etxera, familiaren konpainia sentitzeko. Pelikularen garaietan familiari ematen zitzaion garrantzia handia baitzen, eta familia hurbil izateak bakardadearen kontrako konponbidea zen. Izan ere, pelikula honek erakusten duen familiaren faltaren bidez, Frankismoak azpimarratzen zuen “familia da benetako zorientasuna” azaleratu egiten da, bidaia egiten duelako zorientasuna berreskuperatzeko nahiarekin.

Film berdinarekin jarraituz, honetan antzematen den beste ezaugarri batera abiatuko nahiz, talka kulturalak direnak. Talka kulturalak, leku batetik besterako bidaian egoteak ohikoak dira, beraz, barne migrazioan ere plazaratu daitezke. Filmean, talka hauei erreferentzia egiten

dion eszenetako bat, protagonista hirira heltzen den momentukoa da. Honetan, protagonista galduta dagoelako, bere inguruko pertsonak arineketan doazelarik leku batetik bestera, eta, bera erdian besteak begiratzen geratzen da, bere ingurua ez balu ulertzen bezala. Hala ere, bere burua kokatzen saiatu egiten da, eta familiaren etxearen bila jarraitzen du.

Familiaren etxea bilatzeko momentuan ere, arazoak aurkitzen ditu, herrian ez bezala, hirian inor ez delako bere egoeraz larritzen, paso egiten dute, edo egiten dioten kasua oso eskasa da, gizona galduta dagoenaren irudia transmititu arren. Era honetan herriko eta hiriko lasaitasuna nabarmenduz, azaleratuz bi lekuetako bizitza ez dela berdina. Batean, herrian, guztien arteko familia-kidetza sustatu egiten delako, eta hirian, gizabanako bakoitzak bere buruaz bakarrik arduratu egiten da, besteez paso eginez.

La ciudad no es para mi filmean ere, ikusi egiten den beste gauza bat, balioen kontrastea da, besteak beste, hauek emakumearen figuraren gain jausten dira osotasunean. Bertan, errainaren eta bilobaren bizimoduak herriko emakumeen daramaten bizimodutik pixka bat aldendu egiten baitira, izan ere, bi emakume hauen bizimodua “askeagoa” bezala ordezkatzeko dela esan daiteke. Frankismoaren ikuspuntutik moralki gaitzesgarriagoa, ordutegi finko barik bizi direlako bakoitzaren bizimodua beraiena izanik.

Hortaz, aititea heltzen denean ez du egoera ulertzen, inoiz ez dagoelako inor etxean eta bizi egiten duen egoera semearen etxean ez du normaltzat ikusten. Horrekin batera, semearen emazteak maitale ezkutu bat du, eta biloba ordutegirik gabe eta murrizketarik gabe lagunekin dago egun askotan. Egoera hau ikusita, aititea beraren balioen eta pentsatzeko moduaren egoera kontrakoa ikusten du, izan ere, egoera hauek, balio “egokien” ez betetzea da, aitonaren pentsatzeko modu hau, erregimenaren ikuspuntu inposatua izanik. Ondorioz, eta egoera bideratu nahian, bere sinesmenak (erregimenarenak), familian inposatu nahi ditu, era honetan, poztasuna etxera berriro ere eramanez, gizartearen begietan balore egokien betetzeak poztasunaren bidea eraikitzen duelako.

Hirian, *La ciudad no es para mi* pelikulako pertsonaia bilatzen zuena aurkitu arren, hau da, familiaren hurbiltasuna, ez du guztizko poztasun topatzen, hortaz etxera itzultzen da. Herriko bere egunerokotasunera bueltatu nahi delako, hirian ez delako guztiz eroso sentitu familia hurbil izan arren. Azken finean, itzuli honek erakusten du, errimenak 60ko hamarkadan ideien berriztapen bat egin zuen arren, eta jada hiria “etsaia” ez zen arren, gizartean oso bereganatua zegoela herriaren irudi ona, eta diktaduraren aldaketak ez zirela gizartean egun

batetik bestera txertatzen. Gizartean aldaketak indarra izateko denbora gehiago behar delako, eta ez bakarrik diskurtso baten aldaketa, azken finean, erregimenaren ideien aldaketa nahi ekonomikoak zituen helburu eta ez gizartearen aurrera pausoa, hauen askatasunei eta eskubideei begira.

2.5. *Kanpo migrazioa.*

Kanpo migrazioaren analisirako *Españolas en París* pelikula, eta herriko profil baten testigantza landu ditut. Eta *El tren de la memoria* dokumental garaikidea era erabiliko dut, analizatzeko material lagungarria ere izateko.

Erabiliko dudan pelikulan, eta elkarrizketan, barne migrazioan bezala, beste lurralde baterako migrazioa bultzatzen zuen arrazoia, berdina izaten zen gehien bat, ekonomia. Honen bidez, kanpo migrazioarako arrazoi indartsua zela erakutsiz. Eran honetan, azaleratzen du Antoniak etxean zeukan pobrezi egoera, eta migrazio prozesua egin eta gero, helmugako lurraldean irabazten zuen diruaren zati bat etxera bidaltzen zuenean, etxeko egoera hobetzeko, pobrezia egoeran aurkitzen ziren bere gurasoak laguntzeko. “*Eta pagetan noztien saldue, esaten dozuen modue hemen, etxera, aiteri eta amari, hilebirik, hilebira, Villaroko banku batera*”. Agerian utzirik, kanpoan irabazten zen dirua, beharrezkoa zela pobrezia egoeratik ateratzeko, hau da, jatorrizko lurraldean uzten zen egoera ez zela ekonomikoki begiratuta, oso ona.

Era honetan, familiako kide baten migrazioa, eta kide horrek bidaltzen zituen erremesak, orokorrean familien bizi baldintzak hobetzen zituzten, aukera ematen zutelako, adibidez, etxetresna elektriko modernoek erosketarako “ (*...*) ez zeukien labadorarik eta nik lehenengo in neundun, etxera etorri orduen hango diruegaz... ba... labadora erosi.” (*Antonia*). Horrenbestez, jatorrizko herrialdean zeuden familiak, diru honen bitartez bere bizi kalitatea hobetzen zuten, bidaltzen ziren erremesei esker etxetresna elektronikoak erosi ahal zituztelako, egunerokoa erosoago egiten zituzten etxetresnak.

Hala ere, migratutako lurraldean irabazten zena ez zen beti diru asko izaten, eta hau, *El tren de la memoria*-an azaldu egiten da. Ikusten denean, irabazten ziren soldadak baxuak izaten zirela, eta migratzaileak, lurraldeko biztanleak nahi ez zituzten lanpostuak hartzen zituztela,

gehienetan maila baxukoak zirenak. Dena dela, irabazten ziren soldatak lan berdinarekin truke, Espainian lortu ahal zirenak baino altuagoak ziren, agerian utzirik herrialdeen egoera ekonomikoa. Eta, lurralde berriak gutxi irabazi arren, konpentsatu egiten ziren, irabazten zutena, Espainian lan berdinatik baino gehiago irabazten zutelako.

Barne migrazioarekin aman komunean dagoen beste ezaugarri bat, kasu batzuetan ematen ziren talka kulturalak dira. Hauek jorratutako filmean eta material historiografiko desberdinetan ikusi ahal dira, pertsona espainolak lurralde batetik bestera bidaiatzean, beste kultura desberdin bat aurkitzen dutelako, beraien kulturarekin parekotasun gutxi daukana. Dena dela, talka kultural handiena *Españolas en París* filmean islatzen da.

Filmean, neska Espainiar batzuen egoera ikusten da Parisen, hauen helmugako hirian. Filmean zehar bi herrialdeen arteko (Frantzia eta Espainia) askatasun egoera desberdina ikusten da, eta hau, argiago nabarmentzen da Parisera heltzen den azkeneko neskaarekin. Honek, mutil batekin harreman bat duelako, mutila jada Espainiako neska batekin harremanetan dagoelarik, hala ere, neskatua mutilarekin daukan harremanean sinesten du. Hala eta guztiz ere, bikotearen gainean bestelako nesken gaitzespenak daude, baina bikoteak adierazten du, Parisen daudela eta hor ez dituztela hainbeste errieta pairatu behar. Beste nesken errietak, garaiko irudimen frankistan txertatzen zuen ideia izanik.

Emakumearen gaineko desberdintasun kulturalak ere desberdindu egiten ditu, *El tren de la memoria*ko pertsonai batek, esaten duenean, “*ibas a comprar y veias, por ejemplo, una señora que salía fumando(...) que se sentaba en un bar a beber una cerveza sola y todo eso, nosotras entonces no estábamos acostumbradas*” (El tren de la memoria, 0:21). Agerian utzirik, Espainiaren egoera kulturala emakumeen gainean, eta Europako bestelako herrialdeen kultura emakumeen gainean ez zela berdina. Izan ere, Espainia gehiago mugatzen zituen emakumeen jarduerak.

Talka kulturekin jarraituz, pelikularen amaieran ere, bi lurraldeen arteko emakumearen askatasun mailari erreferentzia egiten diote, emakumearen haurdunaldia izanik gai nagusia. Goian azaldutako neskatua haurdun dagoelako, ezkongabea izanik, eta bere mutil-lagunak Espainian beste harreman bat duelarik. Egoera honetan, haurdunaldia eragozteko ideia dauka buruan, jatorrizko lurraldean, beraren egoera, ez zelako egoera ona izango, eta gizartean txarto

ikusia izango litzatekeelako. Honen bitartez, berriro ere, bi lurraldeetako kultura desberdinduz, izan ere, Parisen, Espainiako gizartearen presiona ez zuelako izango umea izango balu. Hortaz, azaldu nahirik, familiaren unitate tradizionalak botere desberdina daukala bi lurraldeetan, eta horri lotua familiari, emakumeari, esleitzen zaizkion baloreak eta izateko jarrerak.

Kanpo migrazioaren barnean eta, analisisian ikusi dugun guztiaren bitartez, esan daiteke, beste lurraldeetara lan egitera zihoazen pertsonen buelta, jatorrizko lurraldeetara, ez zirela gehienetan ematen. Hobeto esateko, kasu gutxi ikusi ditut analizatu dudan materialean. Honetan agertzen diren langileen gehiengoak, egindako bidaia zaila izan arren, eta horrela azaleratu dutelarik, gehiengoak helmugako lurraldean berregin zuten bere egunerokoa, eta askorentzat Espainiako egoerara bueltatzea ez zituen asko erakartzen, lurraldean zegoen krisi eta egoera politikoagatik, eta honek, bilakatzen zuen ezinegonagatik lanari, ekonomiari... begira. Egoera hauen adibideak, *Españolas en París* eta *El tren de la memoria* ikus entzunezko materialen ikusten dira.

Pelikulan, emakume baten bitartez ikusten da, hau, Parisko emakumeen egoerarekin gustura aurkitzen da eta Espainiara bueltatzeak ez dio bat ere erakartzen, bertako kultura emakumeentzat mugatzaileagoa zelako, eta egoera ekonomikoa pobreagoa zelako. Eta dokumentalean, eliza batean aurrean bikote batzuk agertzen direnean, azalduz bere helmugako lurraldean geratu zirela bizitzera, hor eratu baitzuten bere egunerokoa, familia, lagunak...

Ordea, Helmugako lurraldean geratzea ez zen guztion aukera, badaudelako kasuak jatorrizko herrira bueltatu zirenak, orain ikusiko den Antoniaren testigantzan adibidez, Ingalaterran egon eta gero, Zeberiora bueltatu zena gurasoak hil zirenean. “*Holan egon nintzan aite eta ama hil, eta bueltan.*”. Era honetan, ikusi daiteke, ez zela guztion aukera helmugako lurraldean geratzea.

3. ONDORIOAK.

Proiektuaren azkeneko atal honetan ondorioak daude, lortutako informazio guztiaren hausnarketa egiteko saila, eta lanaren hasieran planteatu diren hipotesi desberdinen baieztatzea edo ukatzea egiteko momentua, hauek materialen azterketa baino lehenago planteatuak izan direlako, nire suposaketen bitartez.

Hortaz, ondorioekin hasteko, eta hipotesiekin banan-banan hasi baino lehen, bi hipotesietan errepikatu den aldagai bat aztertuko dut “aldaketak”. Hauek, 60ko hamarkadan gizartean bai eman zirela jakinekoa da, aurreko hamarkadetan bezala, hala ere, 60ko hamarkadan egondako aldaketak nabariagoak izan ziren, eta hori lan osoan ikus daiteke. Izan ere, familiaren eta emakumearen errealitateak aldatuz joan zen. Frankismoak oso markatutako baloreen eta tradizioen mugak apur bat ireki zirelako, adibidez, emakumeari ikasteko aukera gehiago emanez, hala ere, emandako aldaketak, ez ziren handiak izan, errealitatean urrun geratzen baitzen erregimenak markatu zuen bizi modutik guztiz ateratzea.

Hipotesi biek, emakumearen aldaketen inpaktua etxean nabaria zen ala ez, edo migrazioak emakumearen gain izandako inpaktua, bere baitan “aldaketen” aldagaia partekatu arren, bietan aldaketen eremua ez da berdina, lehenengoan familiaren barneko, emakumearen aldaketez hitz egiten delako, eremua etxe barnean izanik; eta bigarrenean ere aldaketez hitz egiten da, baina migrazioaren ondorio bezala, hau da, migrazioak eragindakoak.

Bederen, lehenengo hipotesiarekin hasiko naiz, aipatuz, egiaren eta gezurraren artean banatu egiten dela nire hasierako pentsamendua. Izan ere, eta jada aurretik aipatu bezala, aldaketak bai izan zuten eragina emakumearen gainean, aurreko hamarkadetan sufritu zuten rol konkretuen mugen inposatzeak zirela medio. Hala ere, aldaketak ez zuten etxe barnean bakarrik eragina izan, izan ere, emakumearen legea lan munduan, eta hezkuntzaren 1970. urteko legea, gizartean izan zuten eragina, hau da, etxetik kanpo. Era honetan, aldaketak gizartearen begi-bistakoak ziren, eguneroko bizitzan izan zutelako eragina, jada emakumeak lan munduan sartzeko aukera zutelako, eta ikasketetan generoaren arteko segregazioa “amaitutzat” ematen zelako.

Baina gauzak ez ziren hain errazak, honekin esan nahi dut, legearen eraldaketa batek,

modu burokratikoan eragiten dituela aldaketak, baina hau ez da nahikoa, eta garaian ere ez zen nahikoa izan. Izan ere, filmetatik eta elkarrizketetatik hauteman dudalako etxeko desberdintasunak generoaren inguruan ez zirela modu ikaragarri batean aldatu, emakumearen onurarako eta askatasunerako, konparaketan etxe kanpoko aldaketak gehiago izanik. Gainera, materialean ikusi egiten da, etxe barnean rola mantendu egiten zirela. Honen adibide izanik, ezkontza eta lanaren arteko harremana, hau da, *Los derechos de la mujer* eta elkarrizketa batzuetan hautematen delako, gizonak eta emakumeek zer nolako pentsamendua duten ezkontza eta gero emakumearen lanari begira, azaleratuz, emakumea ezkontzen denean, ezin duela lan egin, bere eginkizunak familian zentratu egin behar direlako.

Hau horrela, pentsatzera eramaten nau, hipotesia ezeztatzeko arrazoi gehiago daudela onartzeko baino. Izan ere, aldaketak etxe barnean gutxi izan ziren, legeak aldatu arren, gizabanakoen pentsatzeko modua, emakumearen gaineko aldaketak eta hauen mugen lausotzea, emakumearen eta familiaren gaineko askatasun berriak arrakasta askorik izan gabe etxeko lau hormen barnean. Hortaz, esan daiteke, askatasunak paperekoak zirela, eta oraindik ere gizartean legeak eragindako aldaketak osotasunean jorratzeko asko falta zela.

Ondorioekin jarraitzeko, planteatu dudan bigarren hipotesia dago, honen arabera, migrazioaren fenomenoak emakumearen gaineko askatasun txikia eragin zuen. Honetan ere, hipotesia ezeztatzeko edo onartzeko, goiko hipotesian bezala, aldaerak daude. Izan ere, migrazio prozesuak aldaketa nabariak sortu zituen emakumearen gainean, baina aldaketa hauetatik, batzuk ez ziren Espainiako estatuan eman, baizik eta, kanpora emigratu zuten emakumeetan izan zuten eragina.

Migrazioaren barnean, eta proiektuan azaldu bezala, bi motatako migrazioak daude, barnekoa zein kanpokoak, eta kasu honetan, barnekoak du garrantzi gehiago. Kanpoko migrazioa, beste lurralde batean ematen zelako, helmugako lurraldean, aldaketak emakumearen gainean indarra izanik beste lurralde batean, hauetako batzuk gero Espainiara bueltatu arren. Horrenbestez, Espainian, helmugako lurraldean aurkitutako kultura desberdina izaten jarraitzen zuen. Era honetan, barne migrazioarekin hasiko naiz.

Nezaka exodoa, edo barne migrazioa, hiriaren eta herriaren arteko bidean datza, eta bi lurralde hauetan zegoen eguneroko bizitza, baloreak, errutinak... desberdinak ziren, era

berean emakumearen eginkizunak. Erregimenak onuratzat hartuz herriko baloreak, eta ez hirikoak, gehien bat aurreko hamarkadetan. Zeinetan, hauen pentsamenduarentzat baloreak finkoagoak eta baliogarriagoak ziren herrian, bide batez, emakumearen rolak finkatuagoak eta mugatuagoak izanik, hauen balioetan emakumearen irudi “perfektuaren” irudiari garrantzi asko ematen zitzaiolako.

Beraz, mugimendu hau, bide batetik baliogarria izan zen emakumeentzat, hirira bidaiatzean bere generoaren gaineko rolak, eginkizunak, egunerokoak... aldatu egiten zirelako, bizi zuten egoera mugatuari askatasun txiki bat zabalduz. Gauzak horrela, errealitate berri baten ikusten zuten bere burua, zeinetan herrian jorratu behar zituzten rolei bideratutako eginkizun guztiak ez zituzten egin behar. Hiriaren errealitate desberdina bizi zelako, emakumeari ere errealitate desberdin bat eskainiz, rolen mugetatik apur bat askatu egiten zuena.

Hala eta guztiz ere, emakumearen gaineko aldaketa nabarrienak, kanpo migrazioan murgiltzen ziren emakumeetan ematen ziren. Helmugako lurraldeetan beste kultura bat zegoelako gizartean, eta emakumearen rolak guztiz desagertuak egon ez arren, Espainiako kulturaren konparaketa eginez askatasun gehiago nabaritzen zen emakumeen gainean. Hau argi ikusten da, *Españolas en París* filmean, protagonista bat ahurdun geratzen den momentuan. Espainian egotekotan, emakume hau zeukan egoerarekin ez zutelako emakumearen irudi onuragarrian sartuko, txarto ikusita egongo litzatekeelako gizartearen begietan, era honetan, gizartetik desplazatuta, bestelako lurraldean gertatzen ez zen bezala.

Beraz, bigarren hipotesiari begira, esan dezaket, ontzat hartuko dudala, jorratu ziren aldaketak migrazioaren eta lurralde eta leku bakoitzaren ondorioz eragina izan zutelako emakumearen irudiaren eta rolen gainean, hala eta guztiz ere, hauek ez ziren asko izan. Emakumearen irudia hamarkadaren amaieran ere rolez betea mantentzen zelako, gutxiago balira ere. Era honetan, aipatuz rolen aldaketa eman zela baina eskala baxuan.

Dena dela, eta lanean irakurri dudan guztia irakurrita, pentsatzera eramaten nau aldaketak ez direla hain erraz ematen, eta askatasun- edo berdintasun-puntu batera iristeko gizonekin, lan handia egin behar dela, eta ez bakarrik gizonaren berdinketa puntura heltzeko, emakumearen askatasun totalera heltzeko ere.

Era honetan, aldaketak ez dira bakarrik legeetan eta gizartearen egitateetan jorratu behar, baita pertsonen pentsamoldeetan ere; izan ere, pertsonen pentsamoldeak aldatzea zailagoa da, askotan ezin delako jakin zer pentsatzen duen jendeak eta hauek beti ontzat ikusitakoa, egunerokotasun errutina bihurtzen delako, askotan ez dutena ikusten eta beraz, ez dute horren gainean kritikarik egiten.

Gainera, gizartearen arazoetako bat, genero baten bizitzeko era eroso da, hau da, ia inolako murrizketarik jasan gabe bizi dena, gizona. Honek eramaten duena bere bizitza uztea nahi ez izatera, horrela, beste generoaren askatasun maila txikia mantendu arren. Horregatik, eta askatasunean hain hutsik dauden egoera horiek berriro jasan behar ez izateko, borrokan jarraitu behar da, gizarte bat sortzeko zeinetan generoen desberdintasunak ez dira egunerokoan ematen, eta gizartearen, emakumearen askatasuna bermatzen den.

BIBLIOGRAFIA.

- Altonaga, Bakarne; Aranguren, Maialen eta Rincón, Aintzane (2017). *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*. Bilbo: UPV/EHU.
- Álvarez del Cuvillo, Antonio (2010). “El género como categoría y las categorías del género”. *Revista de derecho social*, (52), 79-112.
- Barrera López, Begoña (2016). “El Seminario de Estudios Sociológicos de la Mujer (1960-1986). Investigación y reivindicación feminista del Tardofranquismo a la Transición”. *Bulletin hispanique. Université Michel de Montaigne Bordeaux*, (118-2), 611-628.
- Bautista Vilar Ramírez, Juan (2000). “Las emigraciones españolas a Europa en el siglo XX: algunas cuestiones a debatir”. *Migraciones & Exilios: Cuadernos de la Asociación para el estudio de los exilios y migraciones ibéricos contemporáneos*, (1), 131-159.
- Blazquez Graf, Norma (2010). “Epistemología feminista: temas centrales”, Blazquez Graf, Norma; Flores Palacios, Fátima eta Ríos Everardo, Maribel. *Investigación feminista. Epistemología, metodología y representaciones sociales*. México D. F.: Universidad Nacional Autónoma de México. (22-38).
- Buisán García, Ana Cristina eta Gordo Mora, Esther (1997). *El sector exterior en España*. Banco de España. Servicio de Estudios.
- Campo, Salustiano del (2004). “Las transiciones de la familia española”. *Arbor*, 178(702), 451-464.
- Campo Urbano, Salustiano del eta Rodríguez-Brioso Pérez, María del Mar (2002). “La gran transformación de la familia española durante la segunda mitad del siglo XX”. *Reis*, (100), 103-165.
- Cavalieri, Elena (2014). España y el FMI: La integración de la economía española en el sistema monetario internacional, 1943-1959. *Estudios de historia económica/Banco de España*, 65.
- Chueca Rodríguez, Ricardo Luis (1989). “Sobre la relativa evolución del régimen franquista”. *Gerónimo de Uztariz*, (3), 40-52.
- Cobo Gutiérrez, David. (2015). *Rescatando la historia: La educación de las mujeres en España en los últimos dos siglos. Notas de una investigación empírica a través de Entrevistas en Profundidad*. Bigarren Hezkuntzako irakasleak prestatzeko masterra.

Santander: Cantabriako Unibertsitatea.

Díaz Vela, Alejandro (2016). *El desarrollo económico de España 1957-1973*. Gradu Amaierako Lana. Santander: Cantabriako Unibertsitatea.

De Dios Fernández, Eider (2018). *Sirvienta, empleada, trabajadora de hogar: Género, clase e identidad en el franquismo y la transición a través del servicio doméstico (1939-1995)*. Málaga: Malagako Unibertsitatea.

